INGURUMENA	**Espedientea:** Zerbitzu eta horniketa kontratu espedientea (Zerbitzu)
	Espediente kodea: 2026ZHKE0001
	Arduraduna: Debagoieneko Mankomunitatea
	Gaia: Epele zabortegiko lixibiatuen, lurrazaleko uren eta lurpeko uren eta Bergarako garbiguneko eta San Balerio garajeko isurketa uren laginketa eta laborategi analisiak egiteko zerbitzuaren kontratazioa

ADMINISTRAZIO- KLAUSULA ZEHATZEN AGIRIA, EPELEKO ZABORTEGIKO LUR GAINEKO UREN, LURPEKO UREN ETA LIXIBIATUEN, ETA BERGARAKO GARBIGUNEKO ETA SAN BALERIO GARAJEKO ISURKETA UREN LAGINAK JASOTZEKO, LANDA NEURKETAK EGITEKO ETA LABORATEGIKO ANALISIAK EGITEKO ZERBITZUA PROZEDURA IREKI SINPLIFIKATU BIDEZ KONTRATATZEKO

KONTRATU MOTA:	**ZERBITZUA**
PROZEDURA:	**SINPLIFIKATUA**
IZAPIDEA:	**OHIKOA**
ERREGULAZIO HARMONIZATUA:	**EZ**
ERREKURTSOA BEREZIA:	**BAI**

ESKUbae7aa58-e324-49c8-bdd9-f789f56da744

1.- KONTRATUAREN XEDEA

Epeleko zabortegian lixibatuen, lurrazaleko uren eta lurpeko uren laginketa, landa neurketak eta laborategiko analisiak egitea, eta, Bergarako garbiguneko eta San Balerio garajeko isurketa uren laginketa eta laborategiko analisiak egiteko zerbitzua ematea

1.1- CPV KODEA: 90714500-0 (ingurumen kalitatea kontrolatzeko zerbitzuak).
1.2- LOTE BANAKETA: EZ

2.- ESLEIPEN PROZEDURA: SINPLIFIKATUA

3.- ESLEIPENA IZAPIDETZEKO MODUA: ARRUNTA

4.- LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA, LIZITAZIO MOTA ETA KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA

Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua **27.518,79€-koa da** (22.742,80€ + 4.775,99€, BEZ-ari dagozkionak) eta honela banatzen da:

- Epele Zabortegiko lurrazaleko uren, lurrazpiko uren eta lixibatuen kontrola: Guztira: 26.775,96€ (BEZa barne)
  - 22.128,89 €/urtean + 4.467,07€ BEZa.
- Bergarako garbiguneko isurketa uren kontrola: Guztira: 452,82 € (BEZa barne)
  - 374,23 €/urtean + 78,59 € BEZa.
- San Balerio garajeko isurketa uren kontrola: Guztira: 290,01 € (BEZa barne)
  - 239,68 €/urtean, gehi 50,33 € BEZa.

Enpresa lizitatzaileek beren eskaintzak beherantz hobetu ahal izango dituzte, kopuru zehatz batzuk kontsignatuz. Horri dagokionez, eskaintzak I eranskinean ezarritako ereduaren arabera aurkeztu beharko dituzte.

ESKUbae7aa58-e324-49c8-bdd9-f789f56da744

Nafarroa etorbidea 17 - ☎ 943793399 - debagoiena@debagoiena.eus - www.debagoiena.eus

SKLko 100.2 artikuluan xedatutakoa jarraiki, lizitaziorako oinarrizko aurrekontuaren banakapena honakoa hau da:

Oinarrizko aurrekontuaren xehapena	%	Zenbatekoa (€)
Langile kostuak	48	13.209,02 €
Zuzeneko beste kostu batzuk	25	6.879,70 €
Zeharkako kostuak	15	4.127,82 €
Beste gastu batzuk	7	1.926,32 €
Industria etekina	5	1.375,94 €
Guztira	**100**	**27.518,79 €**

4.1- KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA (kontratu luzapena barne) ondorengoa da: 45.485,60 € (BEZa kanpo)

4.1.1- HASIERAKO IRAUPENA: 22.742,80€, BEZ-a kanpo.

- Epele Zabortegiko lurrazaleko uren, lurrazpiko uren eta lixibatuen kontrola 22.128,89 €/urtean (BEZ-a kanpo)
- Bergarako garbiguneko isurketa uren kontrola: 374,23 €/urtean (BEZ-a kanpo)
- San Balerio garajeko isurketa uren kontrola: 239,68 €/urtean (BEZ-a kanpo)

4.1.2- AURREIKUSITAKO LUZAPENAK (1): **22.742,80€ da, BEZ-a kanpo**

4.1.3- KONTRATU ALDAKETAK: EZ DIRA AURREIKUSTEN

Kontratu honetan ez da prezioen berrikuspenik egingo, SPKLren 103.1 artikuluari jarraiki.

5.- KONTRATUAREN IRAUPENA: urte bat

6.- LUZAPENAK: urte beteko ondoz ondoko luzapen 1

7.- PRESTAZIOA EGIKARITZEKO EPEA:

Kontratua formalizatu eta hurrengo egunean hasiko da kontratua gauzatzeko epea. **Zerbitzu kontratu honek gehienez urtebete iraungo du, izenpetzen den datatik zenbatzen hasita, eta beste urtebetez luzatu ahal izango da, gehienez ere bi urte bete arte.**

ESKUbae7aa58-e324-49c8-bdd9-f789f56da744

Epe horretan, Epele zabortegia behin-betiko ixteko obrak exekutatzea eta Eusko Jaurlaritzak IBB-aren araberako zabortegiaren "itxi-ondorengo egoera" finkatzea aurreikusten da. Zabortegiaren "itxi ondorengo egoera" horrek zabortegiko lixibiatu, lurrazaleko eta lurpeko uren jarraipen lanak baldintzatuko ditu, aztertu beharreko parametro kopurua eta neurketen maiztasuna murriztu egingo baitira.

Laborategiko entseguen emaitza analitikoak gehienezko 15 laneguneko epean aurkeztu beharko dira, laginketa egunetik zenbatzen hasita.

8.- BEHIN-BEHINEKO BERMEA:

Prozedura sinplikatua izanik ezingo da eskatu

9.- BEHIN-BETIKO BERMEA:

Adjudikazioaren zenbatekoaren %5ari dagokiona, BEZ-a kenduta

Bermearen itzulera Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 111. artikuluan xedatutakoaren arabera itzuliko edo ezereztuko da,

10.- ESPEDIENTEA IKUSGAI JARTZEA:

Debagoieneko Mankomunitateko bulegoetan

11.- PROPOSAMENAK AURKEZTEKO EPEA: 15 egun

12.- ALDAERAK: Ez dira onartzen

13.- ESLEIPEN IRIZPIDEAK:

13.1 BALIO- JUDIZIOARI LOTUTAKO IRIZPIDEAK: ez daude

13.2 IRIZPIDE AUTOMATIKOAK : Gehienez 100 puntu

13.2.1 PREZIOA. Gehienez 75 puntu

13.2.2 ENAC-EK EDO BALIOKIDE BATEK INSPEKZIO ENTITATE EDO SAIAKUNTZEN LABORATEGI GISA AKREDITATUAK DITUEN PARAMETRO ANALITIKOEN KOPURUA: Gehienez 25 puntu

Puntuazioak akreditatutako parametroen arabera kalkulatuko dira, interpolazio linealaren bidez, bi puntuek definitutako zuzenaren arabera: P1 (taulan zehazturiko parametro akreditatu guztiak: gehieneko puntuazioa 25 puntu) eta P2 (parametro akreditatu bat ere ez, gutxieneko puntuazioa, 0 puntu) eta zuzenaren segmentuen barruan, haiek mugatuta.

Baloraziotik salbuetsita geratuko dira ondorengo parametroak: erredox potentziala, toxiko metalikoak, maila piezometrikoa, solido lodiak eta pestizidak.

Nafarroa etorbidea 17 - ☎ 943793399 - debagoiena@debagoiena.eus - www.debagoiena.eus

ESKUbae7aa58-e324-49c8-bdd9-f789f56da744

Akreditaturiko parametro analitikoen **gehienezko kopurua 48** da, ondorengo taulan adieraziak:

	Parametroak	Akreditazioa (BAI / EZ)	Adierazi akreditazio eremua: (Ur kontinentalak / Hondakin urak / Aurreko biak)
1	Aldehidoak		
2	Aluminioa (Al)		
3	Amonioa (N-$NH4^+$)		
4	AOX		
5	Artsenikoa (As)		
6	Barioa (Ba)		
7	Beruna (Pb)		
8	Boroa (B)		
9	Burdina (Fe)		
10	DBO_5		
11	Detergenteak		
12	DQO		
13	Emaria*		
14	Eroankortasuna*		
15	Eztainu (Sn)		
16	Fenolak		
17	Fluoruroak (F^-)		
18	Fosforo totala (P total)		
19	Kadmioa (Cd)		
20	Karbono organiko disolbatua (COD)		
21	Karbono organiko guztia (COT)		
22	Kloruroak (Cl^-)		
23	Kobrea (Cu)		
24	Kolorea		
25	Kromo III		
26	Kromo totala/ Cr VI (galeriaren kasuan)		
27	Magnesioa (Mg)		
28	Manganesoa (Mn)		
29	Merkurioa		
30	Molibdenoa (Mo)		
31	Nikela (Ni)		
32	Nitratoak (N-$NO3^-$)		
33	Nitrogeno totala		
34	Olioak eta koipeak		
35	Oxigeno disolbatua*		
36	pH*		
37	Selenioa (Se)		
38	Silizea (SiO_2)		

ESKUbae7aa58-e324-49c8-bdd9-f789f56da744

39	Solidoak: esekitakoak (SST)		
40	Solidoak: disolbatuak (TSD)		
41	Solidoak: jalkidurazkoak		
42	Sulfatoak ($SO4^{=}$)		
43	Sulfitoak		
44	Sulfuroak		
45	Tenperatura*		
46	Uhertasuna		
47	Zianuroak		
48	Zinka (Zn)		
	Akreditaturiko parametroak guztira		

** In situ neurturiko parametroak.*

ESKUbae7aa58-e324-49c8-bdd9-f789f56da744

Nafarroa etorbidea 17 - ☎ 943793399 - debagoiena@debagoiena.eus - www.debagoiena.eus

Aurkibidea

I.- ALDERDI OROKORRAK ETA KONTRATUAREN KONFIGURAZIOA....10
1. ARAUBIDE JURIDIKOA....10
3. KONTRATUAREN IRAUPENA ETA KONTRATUA GAUZATZEKO EPEA....11
4. LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA....11
5. FINANTZAKETA....12
6. ORDAINTZEKO MODUA....12
7. KONTRATISTAREN ESKUBIDE ETA OBLIGAZIOAK....12
8. ADMINISTRAZIOAREN ESKUBIDE ETA OBLIGAZIOAK....13
9. BERMEAK....14
10. LIZITAZIOAREN PUBLIZITATEA....14
11. PARTE HARTZEKO AHALMENA....14
12. KAUDIMENA....14
12.1 KAUDIMEN FINANTZARIOA....15
12.2 KAUDIMEN TEKNIKOA....15
12.3 SEKTORE PUBLIKOKO LIZITATZAILEEN ETA ENPRESA SAILKATUEN ERREGISTRO OFIZIALAREN INSKRIPZIOA....16
12.4.- KLASIFIKAZIOA....17
13. PROPOSAMENEN AURKEZPENA....17
14. PROPOSAMENEN EDUKIA....17
15. KONTRATAZIO MAHAIA ETA GUTUN-AZALA IREKITZEA....19
16. ESLEITZEKO IRIZPIDEAK....20
17. KONTRATUA ESLEITZEA ETA ESLEIPENA JAKINARAZTEA....24
17.1 Eskaintzen sailkapena eta esleipen proposamena....24
17.2 Eskaintzarik hoberena aurkeztu duen lizitatzaileak aurretiazko baldintzak betetzen dituela arrazoitzen duen dokumentazioaren aurkezpena....24
17.3 Esleipena....25
18. KONTRATUAREN FORMALIZAZIOA....26
19. KONTRATUAREN EGIKARITZEA....26
20. KONTRATUAREN EXEKUZIO BALDINTZA BEREZIAK....27
20.1 Kontratuaren exekuzio epean, esleipendun enpresak ondoko zereginak burutu beharko ditu:....27

ESKUbae7aa58-e324-49c8-bdd9-f789f56da744

Nafarroa etorbidea 17 - ☎ 943793399 - debagoiena@debagoiena.eus - www.debagoiena.eus

20.2.- BETEBEHAR SOZIALAK....27
20.3.- GUTXIENEKO LAN-BALDINTZAK....28
20.4.- DATU-PERTSONALEN BABESA....28
21. ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA....28
22. SUBROGAZIOA LAN KONTRATUETAN....29
23. AZPIKONTRATAZIOA....29
24. ZEHAPENEN ERREGIMENA....30
25. BERMEALDIA....31
26. PREZIOEN BERRIKUSPENA....32
27. KONTRATUAREN ALDAKETA....32
28. KONTRATUA SUNTSIARAZTEA....32
29. ERREKURTSOEN ARAUBIDEA....33
30. KONTRATAZIO PROZEDURAN ERABILI BEHARREKO KOMUNIKABIDEAK....33
31. KONFIDENTZIALTASUNA ETA DATUEN BABESA....33
32. PROPOSAMENAK AURKEZTEKO EPEA, EZAUGARRIAK ETA PLEGUETARAKO SARBIDEA....34
33. PROPOSAMENAK AURKEZTEKO MODUA....36
34. AURKEZTUTAKO DOKUMENTAZIOA IREKITZEA ETA TRATATZEA, ENPRESAK AUKERATZEA ETA ESKAINTZAK BALORATZEA....37
1. GUTUN AZAL ELEKTRONIKOA IREKITZEA....37
35. ESLEIPENA ETA FORMALIZAZIOA....40
36. KONTRATUA EZ GAUZATZEKO ERABAKIA ETA PROZEDURA BERTAN BEHERA UZTEA....41
II.- KONTRATUA GAUZATZEA....41
37. KONTRATUA GAUZATZEKO ARAUBIDE OROKORRA....41
38. KONTRATUAREN ARDURADUNA....41
39. KONTRATUA GAUZATZEKO BALDINTZA BEREZIAK....42
Ingurumen arlokoak:....42
40. KONTRATISTAREN LAN BETEBEHARRAK....42
41. KONTRATISTAREN ERANTZUKIZUNA KONTRATUA GAUZATZEAN HIRUGARRENEI ERAGINDAKO KALTEENGATIK....42
42. HIZKUNTZA BETEBEHARRAK....43
43. PRESTAZIOA HARTZEA ETA BERME EPEA....43
44. KONTRATISTARENTZAKO ZIGORRAK HONAKO HAUEK EZ BETETZEAGATIK....44
A. Kontratua gauzatzeko epeak ez betetzea....44

Nafarroa etorbidea 17 - ☎ 943793399 - debagoiena@debagoiena.eus - www.debagoiena.eus

ESKUbae7aa58-e324-49c8-bdd9-f789f56da744

B. Prestazioen gauzatze partziala ez betetzea....44
C. Betetze akastuna....44
D. Ingurumen, gizarte eta lan arloko betebeharrak ez betetzea....45
E. Azpi-kontratistekiko betebeharrak ez betetzea....45
45. KONTRATUA BERTAN BEHERA UZTEKO ARRAZOIAK....45
46. AZPIKONTRATAZIOA....45
III.- IZAERA, ARAUBIDE JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA....46
47. KONTRATUAREN IZAERA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA....46
48. ADMINISTRAZIOAREN ESKUMENAK....46
49. JURISDIKZIO ESKUDUNA....46
I. ERANSKINA.- LIZITAZIO ELEKTRONIKORAKO JARRAIBIDEAK....48
II.- ERANSKINA. JAKINARAZPEN ETA KOMUNIKAZIO ELEKTRONIKOAK....49
III. ERANSKINA.- IRIZPIDE AUTOMATIKOAK BALORATZEKO ESKAINTZA....51
IV. ERASKINA .- ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA....53

ESKUbae7aa58-e324-49c8-bdd9-f789f56da744

Nafarroa etorbidea 17 - ☎ 943793399 - debagoiena@debagoiena.eus - www.debagoiena.eus

I.- ALDERDI OROKORRAK ETA KONTRATUAREN KONFIGURAZIOA

1. ARAUBIDE JURIDIKOA

Kontratu hau zerbitzuzko kontratua da, Sektore Publikoko Kontratuen Legea onesten duen, azaroak 8ko 9/2017 Legearen 17. artikuluak aurreikusitakoaren arabera. Administrazio-kontratua izango da, eta herri administrazioek kontratazioetarako erabiltzen dituzten printzipio komunen arabera arautuko da, eta beti ere kontratazioa publikoaren arloan Europako erkidegoen zuzenbideak zehaztutako printzipio komunen arabera.

Aurreko paragrafoan ezarritakoaren arabera, honako hauek izango dira kontratua arautuko dutenak:

1.- Klausula Administratibo Berezien Plegu hau eta Preskripzio Teknikoen Plegua.

2.- Lizitazioa eta kontratua, egiterakoan eta bi horiek garatzen diren bitartean, indarrean dauden Toki Araubideko Herri Administrazioetako Kontratuetako legezko eta arauzko xedapenetan jasotako kontratazio-arauak aplikatuko dira.

Zehazki, honako arau hauek aplikatuko dira:

- 7/1985 Legea,apirilaren 2koa, toki araubidearen oinarriak arautzen dituena
- 781/1986 Errege Lege Dekretua, apirilaren 18koa, toki araubidearen arloan indarrean dauden xedapenen testu bategina onesten duena
- 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuen Legea onesten duena (aurrerantzean, SPKL)

Arauzko xedapena berriz, honako hauek izango dira, beti aurrez aipatutako arauen aurka egiten ez duten heinean.

- 817/2009 Errege Dekretua, maiatzaren 8koa, SPKL partzialki garatzen duena
- 1098/2001 Errege Dekretua, urriaren 12koa, herri administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendua onesten duena

3.- Administrazio-zuzenbideko gainerako arauak.

4.- Zuzenbide pribatuko arauak zuzenbide osagarri gisa erabiliko dira, kontratua interpretatu, bete edo iraungitzerako garaian eta kontratua indarrean dagoen bitartean zalantzak sortu eta zalantza horiek aurreko paragrafoan aipatutako xedapenen bidez argitu ezin direnean. Edonola ere, zuzenbide pribatuko arauak aplikatzeko, kontuan hartu beharko dira administrazioaren eskumenak.

5.- Erabat teknikoak diren gaietan izan ezik, plegu honetako xedapen guztiak espedienteari lotutako gainerako aukerako baldintzen gainetik egongo dira.

Administrazioari eskumen hauek dagozkio: kontratua interpretatzea, betetzeko sortu daitezkeen zalantzak ebaztea, interes publikoko arrazoiengatik aldatzea, kontratua gauzatzearen ondorioz kontratistari egotz dakiokeen erantzukizuna adieraztea, gauzapena ete tea, bertan behera uztea erabakitzea eta horren ondorioak zehaztea, SPKLn eta Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorrean ezarritako mugen barruan eta horien baldintza eta ondorioekin.

ESKUbae7aa58-e324-49c8-bdd9-f789f56da744

2. KONTRATUAREN XEDEA

2.1- Epeleko zabortegian lixibatuen, lurrazaleko uren eta lurpeko uren laginketa, landa neurketak eta laborategiko analisiak egitea, eta, Bergarako garbiguneko eta San Balerio garajeko isurketa uren laginketa eta laborategiko analisiak egiteko zerbitzua ematea

2.2- CPV KODEA: 90714500-0 (“Ingurumen kalitatea kontrolatzeko zerbitzuak”).

2.3- Kontratuaren xedeak lote bakarra du: Epele zabortegian, Bergarako Garbigunean eta San Balerioko garajean egin beharreko laginketa eta laborategi analisi guztiak izaera oso antzerakoa dute, eta esleipendun enpresa berak egitea komeni da. Modu horretan, laginketak ahal den neurrian denboran sinkronizatu eta baliabide material eta pertsonalak modu eraginkorragoan erabiltzea ahalbidetuko litzateke.

2.4 Ez dira onartuko eskaintza alternatiboak.

3. KONTRATUAREN IRAUPENA ETA KONTRATUA GAUZATZEKO EPEA

1.- Kontratuaren hasierako iraupena karatularen 5. paragrafoan zehazten dena da. Epe hau luzatu ahal izango da karatularen 6.paragrafoan hala zehazten bada SPKLen 29. artikuluan ezarritako egoera eta eskakizunen arabera.

Luzapena Kontratazio organoak erabakiko du eta kontratugilearentzat derrigorrezkoa izango da, beti ere kontratuaren iraupen epea amaitu baina bi hilabete lehenago jakinarazten bada.

2.- Prestazioa egikaritzeko epea kontratua formalizatzen den hurrengo egunean hasiko da, eta 7 paragrafoan adierazitako epeak errespetatu beharko dira.

4. LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA

Kontratuaren lizitaziorako oinarrizko aurrekontua karatulako 4. atalean ezarritakoa da. Lizitatzaileek kopuru horretatik behera dagoen eskaintza egin dezakete, bestelako kopuru zehatz bat proposatuz.

Enpresa lizitatzaileek egiten dituzten proposamenetan, ondorio guztietarako, kontrataren prezioak ez ezik, kontzeptuak zergapetzen dituzten tributu guztiei dagozkien kuotak ere sartuta daudela ulertuko da. Hala ere, **Balio Erantsiaren gaineko Zerga banakatuta agertu beharko da eskaintzetan, eta kontratuari bere arautegi arautzailearen arabera aplikagarri zaizkion tipoa eta zenbatekoa adieraziz**.

ESKUbae7aa58-e324-49c8-bdd9-f789f56da744

5. FINANTZAKETA

Egin beharreko kontratuaren gastuari aurre egiteko kreditu egokia eta nahikoa dago. Kontratuaren gastuak aurrekontu-partida hauen kontura finantzatuko dira:

3600.227.162.36.32
3004.226.162.10.99

Halaber, organo eskudunak konpromisoa hartzen du dagozkion kredituak erreserbatzeko eragindako aurrekontuetan.

6. ORDAINTZEKO MODUA

1.- Kontratuaren prezioa dagokion faktura aurkeztu eta adostasuna emandakoan ordainduko da (indarrean dauden xedapenetan ezarritako izapideak bete ondoren) honelaxe:

Bi faktura mota aurkeztuko dira: (a) seihileko bi faktura, Bergarako garbigunearen eta San Balerioko garajeko kontrolari dagozkienak, eta (b) hileroko 12 faktura, Epeleko zabortegiaren hileko kontrolari dagozkionak. Hileroko fakturak kalkulatzeko, Epelerako urteko eskaintza zati 12 egingo da.

SPKLren hogeita hamabigarren xedapen gehigarriaren arabera, eta dagokien fakturetan jasota gera dadin, adierazten da kontabilitate publikoko gaietan eskumenak dituen administrazio organoa, Kontratazio Organoa eta unitate hartzailea Debagoieneko Mankomunitatea dela.

2.- Abenduaren 27ko 25/2013 Legeak xedatzen duenaren arabera, faktura elektronikoa emateko derrigortuta dauden entitateek fakturak Debagoieneko Mankomunitatearen formatu elektronikoan bidali beharko dizkiote Gipuzkoako Foru Aldundiaren Faktura Elektronikoen Sarrera Puntu Orokorraren bidez, (https://www.gfaegoitza.net/SarreraPuntua), Debagoieneko Mankomunitatea atxikitua baitago, horretarako Debagoieneko Mankomunitatearen DIR3 kodeak erabiliz:

Erakunde kontratatzailea / Debagoieneko Mankomunitatea IFZ: P2000001D
Organo kudeatzailea / L05200019
Kontabilitate Bulegoa / L05200019
Unitate izapidetzailea / L05200019

7. KONTRATISTAREN ESKUBIDE ETA OBLIGAZIOAK

1.- Prezioa kobratzeko eskubidea 6, klausulan xedatutakoaren araberakoa izango da.
2.- Kontratistak honako betebehar berezi hauek ditu, Plegu honetan eta arau

ESKUbae7aa58-e324-49c8-bdd9-f789f56da744

osagarrietan jasotakoez gainera:

a) Kontratuaren xedeko lanak egikarituko ditu, eta pertsonalki egingo ditu, kontratuan ezarritako klausulak eta haren oinarria den proiektua zorrotz betez, eta Debagoieneko Mankomunitateko Teknikari eskudunaren aginduetara. Era berean, ezin izango du kontratua, osorik edo neurri batean, beste pertsona baten esku utzi administrazioaren baimen espresik gabe.

b) Behar den kasuetan, behin-betiko bermea zehaztutako epean jarriko du, eta bidezkoa denean, osagarria.

c) Esleipen-egintzan zehaztutako epean formalizatuko du kontratua.

d) Kontratuaren indarraldi osoan administrazio publikoekin kontratatzeko gaitasuna mantentzea bermatuko du, eta behartuta egongo da etor litezkeen ezintasun eta bateraezintasunen berri ematera hamabost eguneko epean.

e) Lizitazioaren eta kontratuaren ondorio sortutako gastu guztiak ordainduko ditu, besteak beste: iragarkiek sortutakoak, fidantzen eraketakoak, eta, hala dagokionean,kontratua eskritura publikoan bere kopiekin formalizatzekoak.

f) Lan Legeriaren, Gizarte Segurantzaren eta Hitzarmen Kolektiboen alorrean dauden xedapen guztiak beteko ditu, eta baita 31/1995 Legean (Lan Arriskuak Prebenitzeko Legea) eta lege hori garatzen duten Errege Dekretuetan jasotako guztia (bereziki langileentzako prestakuntza-ekintzei eta babes-ekipo indibidualen hornidurari dagokienez), eta, halaber, zerga-alorreko xedapenak ere beteko ditu. Bestalde, Gobernu Juntak eta lanen Zuzendaritzak ez dute nolako erantzukizunik hartuko, xedapen horiek ez betetzeagatik etor litezkeen erantzukizunetan.

g) Kontratua egikaritzerakoan, eta bermealdia bukatzen den arte, antzeman daitezkeen akatsen erantzukizuna izango du.

h) Kontratua gauzatzeko beharrezko diren jardueren ondorioz Mankomunitateari eta hirugarrenei eragindako kalteak ordaindu beharko ditu, SPKLen 196. artikuluak ezarritakoaren arabera.

i) Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza- ofizialtasun bikoitzari buruzko xedapen guztiak eta 2025eko irailaren 18ko Gobernu Juntak onartutako Hizkuntza Ofizialak erabiltzeko irizpideak dokumentuan adierazitakoak betetzea. Dokumentu hori lizitatzaileen eskura dago Debagoieneko Mankomunitateko honen webgunean (www.debagoiena.eus). Horretaz gain, Baldintza Teknikoen Agirian hizkuntza baldintzen inguruan xedatutakoa kontuan hartu beharko da.

j) Datuak babesteari buruz indarrean dagoen araudia betetzea, Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/678 (EB) Erregelamenduan, pertsona fisikoen babesari, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari buruzkoan, jasotako xedapenekin bat etorriz, eta hura garatzen duen araudia kontuan hartuta. Era berean, Plegu honetako 30. atalean ezarritakoa bete beharko da

8. ADMINISTRAZIOAREN ESKUBIDE ETA OBLIGAZIOAK

1.- Mankomunitateari dagokio kontratuaren ikuskapena egitea bere langile teknikoen bidez. Horiek jarraibideak eman ahal izango dizkiote kontratistari, betiere lana modu eraginkorrean betetze aldera, kontratua arautzen duten klausulak oinarritzat hartuta eta Mankomunitateko lehendakariak dituen maila goragoko zuzendaritza- eta ikuskaritza-ahalmenen kalterik gabe.

2.- Administrazioa behartuta egongo da 6. klausulan xedatutakoaren arabera ezarritako kopuruak ordaintzera, beti ere kontratuaren prestazioa modu egokian eman dela egiaztatzen den egoeretan. Modu egokian egikaritu ez dela frogatzen den kasuetan, administrazioak neurriak hartuko ditu prestazioa egoki bete dadin,

ESKUbae7aa58-e324-49c8-bdd9-f789f56da744

eta ordainketak eta fidantza bahituko ditu egoera zuzendu bitartean (kasu hauetan erabakia justifikatua egongo da, eta kontratistak entzunaldia izatea bermatu beharko da).

9. BERMEAK

1.- Behin behineko bermea:
Prozedura sinplifikatua denez, ez da behin- behineko bermerik eskatzen.

2.- Behin betiko bermea SPKLen 145. artikuluak ezarritakoaren arabera eskaintzarik hoberena aurkezten duen lizitatzaileak behin betiko bermea jarri beharko du Debagoieneko Mankomunitatearen Kutxan, eskainitako azken prezioaren %5ari dagokiona, BEZ-a kenduta.

Berme hori jartzeko epea 7 egun baliodunekoa izango da, bermea jartzeko eskakizuna jasotzen duen egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

SPKLen 108. artikuluan baimendutako edozein modutan (esku-diruz, Zor Publikoko balioez, abalez edo kauzio aseguruz) eta indarrean dagoen legeriak araututako baldintzetan eman ahal izango dira bermeak.

Bermearen itzulera Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 111. artikuluan xedatutakoaren arabera itzuliko edo ezereztuko da, bermearen epea amaitu eta gero, eta esleipendunak kontratuko bere betebehar guztiak bete eta gero.

10. LIZITAZIOAREN PUBLIZITATEA

Lizitazio honi dagokion iragarkia Debagoieneko Mankomunitateko Kontratugile Profilean (www.debagoiena.eus) argitaratuko da.

11. PARTE HARTZEKO AHALMENA

1.- Lizitazio honetan parte hartu ahal izango dute gaitasun juridikoa eta jarduteko gaitasuna duten eta kaudimen ekonomiko, finantzario eta teknikoa duten pertsona natural edo juridiko guztiek baldin eta SPKLen 71. artikuluan zehaztutako kontratatzeko debekuen kasuren baten barnean ez badaude.

2.- Enpresaburu batzuk lizitazioan batera parte hartzeko interesa dutenean, aldi baterako elkarte bat eratu ahal izango dute horretarako, eta ez da beharrezkoa izango hura eskritura publikoan formalizatzea, harik eta haien aldeko esleipena egin arte. Kasu horretan, enpresaburuek betebehar solidarioa izango dute Administrazioaren aurrean, eta elkartearen ordezkari edo ahaldun bakar bat izendatu beharko dute, kontratutik eratorritako eskubideak baliatzeko eta betebeharrak betetzeko ahalorde askietsiekin, kontratua amaitu arte.

12. KAUDIMENA

Nafarroa etorbidea 17 - ☎ 943793399 - debagoiena@debagoiena.eus - www.debagoiena.eus

ESKUbae7aa58-e324-49c8-bdd9-f789f56da744

Lizitatzaileek ondoren zehazten diren kaudimen ekonomiko eta finantzarioa eta kaudimen tekniko edo profesionaleko baldintzak eduki beharko dituzte.
Eskaintzarik hoberena aurkezten duen lizitatzaileak bere kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa egiaztatu beharko du, plegu honetako 12. klausulan zehaztutako moduan.

Kaudimena 12 klausulan xedatutako baliabideen bidez egiaztatu eta ebaluatuko da.

12.1 KAUDIMEN FINANTZARIOA

a.- Lizitatzailearen kontratatu nahi den eremuari dagokion urteko negozio bolumena azkeneko hiru urteetako bolumen handieneko urteari dagokiona. Urteko gutxieneko bolumena kontratuaren zenbatetsitako balioa baino 1,5 aldiz handiagoa izango da (BEZa kanpo). Hau da

45.485,60 € x 1,5 = 68.228,4 €

b.-Urteko kontuak onartzeko betekizuna iraungita duen azken ekitaldi ekonomikoa ixtean, ondare garbiak, edo aktiboen eta pasiboen arteko ratioak, **68.228,4** €-koa edo hortik gorakoa izan beharko du.

Lizitatzailearen edo hautagaiaren kaudimen ekonomiko eta finantzarioa bere urteko kontuen bidez, onartuak eta Merkataritza Erregistroan jasoak, egiaztatuko da, eta bestela, inskribatuta egon behar dueneko Erregistro Ofizialean jasota dauden kontuen bitartez. Merkataritza Erregistroan inskribatu gabeko enpresari indibidualek beren urte negozioen bolumena Merkataritza Erregistroak legeztatutako inbentario-liburuen eta urteko kontuen bitartez egiaztatuko dute.

12.2 KAUDIMEN TEKNIKOA

Enpresariaren kaudimen tekniko edo profesionala egiaztatzeko ondorengo bitartekoak erabiliko dira:

a.- Azkeneko hiru urteetan (2023, 2024 eta 2025) kontratuaren xede diren izaera bereko edo antzeko zerbitzu nagusien zerrenda, zenbatekoa, datak eta horiek norentzako egin diren, publiko edo pribatuarentzako, aipatuz (landa-neurketak, lagin-hartzea eta laborategiko ur-analisiak).

Enpresariak gauzatutako zerbitzuen eta kontratuaren xede diren zerbitzuen arteko loturarako irizpidetzat hartuko da sailkapen azpitalde berekoak izatea, kontratua kokatuta balego arautegian ezartzen direnetako batean, eta hala ez balitz, CPV sailkapenaren barnean dagozkien kodeetan lehenengo hiru digituen artean dagoen berdintasuna.

Aldi horretan, gutxienez kontratu bat gauzatu behar izan da espediente honen xede berarekin edo antzekoarekin, eta kontratuaren balio zenbatetsiaren %70eko aurrekontua izan behar du gutxienez. Hau da:

45.485,60 € x %70 = 31.839,92 €

Kontratazio organoaren menpe dauden zerbitzuak eskatu ahal izango dio egindako

ESKUbae7aa58-e324-49c8-bdd9-f789f56da744

hornidura edo lanak egiaztatzea organo eskudunak egin edo ontzat emandako ziurtagirien bitartez, hartzailea sektore publikoko erakunde bat denean; hartzailea subjektu pribatua denean, honek egindako ziurtagiri baten bitartez edo, ziurtagiri horren faltan, enpresariak eginiko aitorpenaren bitartez; bere kasuan, ziurtagiri hauek zuzenean kontratazio organoari igorriko dizkio eskumena duen agintaritzak.

Zerrendan adierazitako zerbitzuen artean hartzailea sektore publikoko erakunde bat izan denetan egindako egikaritza egokiaren ziurtagiriak zuzenean kontratazio organoari igorri ahal izango dizkio zerbitzuak kontratatu dituen erakundeak.

*SPKLren 90.4 artikuluaren arabera, enpresa sortu berriek SPKLren 90.4 artikuluaren b) letratik i) letrara bitartekoetan aipatzen den edozein bitartekoren bidez egiaztatu ahal izango dute beren kaudimena, eta inola ere ez da aplikatuko a) letran ezarritakoa, zerbitzu/hornidura kopuru jakin bat egikaritzeari buruzkoa.

b.- Honako ziurtagiriak izatea ezinbestekoa izango da kaudimen teknikoa egiaztatzeko (hauek aurkezten ez dituzten enpresak ezingo dute lizitazioan parte hartu)

b.1.- **“Administrazio Hidraulikoaren Enpresa Laguntzaileen (ECAH)” ziurtagiria** izan behar du, uztailaren 18ko 665/2023 Errege Dekretuaren 255. artikuluan ezarritakoaren arabera, zeinak, apirilaren 11ko 849/1986 Errege Dekretuak onartutako Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamendua, uztailaren 29ko 927/1988 Errege Dekretuak onartutako Uraren Administrazio Publikoaren Erregelamendua eta lurzorua kutsa dezaketen jardueren zerrenda eta lurzoru kutsatuen adierazpenerako irizpideak eta estandarrak ezartzen dituen urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretua aldatzen dituen.

b.2- Inspekzio-entitate bezala akreditaturik egon behar du, UNE-EN ISO 17.020:2012 arauaren arabera, ENACek edo haren baliokide den erakunde batek emandako egiaztagiri bitartez, zabortegiko lixibiatu, lurrazaleko eta lurpen uren laginketak egin ahal izateko

b.3.- Zehaztapen analitikoak ondorengo akreditazioa duten laborategietan egingo direla ziurtatuko du: UNE-EN ISO 17025:2017 saiakuntza eta kalibrazio laborategien gaitasunerako baldintza orokorrak jasotzen dituen araudiari jarraiki. Akreditazioan beharrezkoa izango da ur mota zehaztea egiaztatutako parametro analitiko bakoitzerako: ur kontinentalak eta/edo hondakin-urak.

12.3 SEKTORE PUBLIKOKO LIZITATZAILEEN ETA ENPRESA SAILKATUEN ERREGISTRO OFIZIALAREN INSKRIPZIOA

ESKUbae7aa58-e324-49c8-bdd9-f789f56da744

SPKLren 159.4 artikuluaren arabera, prozedura sinplifikatuaren bidez egiten diren lizitazioetara aurkezten diren lizitatzaile guztiek Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean inskribatuta egon beharko dute, eskaintzak aurkezteko epemugan, lehia mugatuta ez badago, betiere.

12.4.- KLASIFIKAZIOA

Lizitazio honetan, ez da sailkapen zehatzik eskatuko, izan ere, kontratuaren xedeari dagokion CPV kodea kontuan hartuta, ez dago APKLEOn araututako indarreko sailkapenen barruan.
Ondorioz, behar den kaudimen tekniko eta ekonomiko finantzarioa frogatu beharko dute, ez badaude klasifikatuak.

13. PROPOSAMENEN AURKEZPENA

Lizitatzaileek honela aurkeztu beharko dituzte beren eskaintzak:
🎬 15 egun naturaleko epean, lizitazio-iragarkia Debagoieneko Mankomunitateko Kontratugile Profilean www.debagoiena.eus. argitaratzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita.
Era honetan:

1.- Proposamenak lizitazio elektronikorako plataformaren bitartez aurkeztuko dira www.contratacion.euskadi.eus.
2.- Dokumentazioa nahiz jakinarazpenak eta komunikazioak bidaltzeko, jarraitu egin beharko zaio baldintza-agiri honetako III. eranskinean jasotakoari.
3.- Fitxategiak izendatuko dira hurrengo klausulan adierazitako atalak kontuan hartuta (proposamenen edukia), eta **ARTXIBO ELEKTRONIKO BAKARREAN** sartuko dira.
4.- Eskaintzak isil-gordekoak izango dira; horregatik, behar adina neurri hartuko da lizitazioa jendaurrean ireki arte eskaintzak sekretuak izatea ziurtatzeko.

14. PROPOSAMENEN EDUKIA

1.- Automatikoki baloratu daitezkeen esleipen irizpideak soilik daudenez, dokumentazioa **ARTXIBO ELEKTRONIKO BAKARREAN**, aurkeztu behar da, izen honekin:
GUTUN AZAL BAKARRA: ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA ETA IRIZPIDE AUTOMATIKOEN ESKAINTZA.

ESKUbae7aa58-e324-49c8-bdd9-f789f56da744

2.- Gutun azal honen barruan, honakoa sartu beharko dute lizitatzaileek:

A. Jakinarazpenak eta komunikazioak jasotzeko datuak, erantzukizunpeko adierazpena eta irizpide automatikoak baloratzeko eskaintza.

A.1 Jakinarazpenak eta komunikazioak jasotzeko datuak, erantzukizunpeko adierazpena eta irizpide automatikoak baloratzekoak diren eskaintza baldintza-agiri honen II, III eta IV. eranskinetan ezarritako ereduen arabera idatziko dira, eta ez dira onartuko Administrazioak eskaintza kontuan hartzeko funtsezkotzat jotzen duena argi eta garbi jakitea eragozten duten omisioak, akatsak edo zirriborroak dituztenak.

Proposamenen bat ez badator bat aztertutako eta onartutako dokumentazioarekin, lizitazioaren oinarrizko aurrekontua gainditzen badu, ezarritako eredua funtsean aldatzen badu, proposamenaren zenbatekoan akats nabarmena egiten badu, edo lizitatzaileak onartzen badu proposamen hori bideraezin bihurtzen duen akatsa edo funsgabetasuna dagoela, kontratazio-mahaiak baztertu egingo

du proposamen hori, ebazpen arrazoitu baten bidez, eta ez da arrazoi nahikoa izango ereduko hitz batzuk aldatzea edo ez aipatzea, horrek ez badu aldatzen proposamenaren zentzua.

Proposamenean, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren zenbatekoa partida independente gisa adieraziko da.

Prezioen eskaintzaren banakapenean hautematen diren akats aritmetikoak ebazteko, oinarrizko prezioari eta aplikatu beharreko BEZ motari buruzko zifrak hartuko dira baliozkotzat, eta ofizioz egingo dira dagozkion kalkuluak guztizko prezioa lortzeko.

B.- Era berean, proposamenarekin batera dokumentazio hau aurkeztu beharko da nahitaez:

***Aldi baterako Enpresen Elkartea (AEE):** Hainbat enpresa aldi baterako enpresa elkarte gisa aurkezten badira lizitazio honetara enpresari horietako bakoitzak erantzukizunpeko adierazpena aurkeztuko du, eta kontrataziorako agiri europar bakarreko galdetegian kasu horietarako eskatutako informazioa emango da bertan.

A.E.E. eratzeko konpromezua:

Aurreko paragrafoak aipagai duen adierazpen horren edo horien osagarri gisa, parte hartu behar duten enpresariek aldi baterako enpresa elkartea SPKLen 69. artikuluaren 3. atalean eskatutakoaren arabera osatzeko konpromisoa aurkeztuko da (AEEko partaide guztiek sinatutako idatzia).

****Atzerriko enpresak:** Atzerriko enpresek, SPKLen 67. eta 68. artikuluek

ESKUbae7aa58-e324-49c8-bdd9-f789f56da744

aurreikusitako moduan egiaztatu beharko dute beren gaitasuna. Erantzukizunpeko adierazpenaz gainera, atzerriko enpresek, kontratua Espainian gauzatu behar bada, zuzenean edo zeharka, kontratutik etor litezkeen gorabehera guztietarako edozein eratako epaitegi eta auzitegi espainiarren jurisdikzioaren pean geratzen direla adierazten duen agiria aurkeztuko dute, eta uko egingo diote, hala behar badu, legokiekeen atzerriko jurisdikzio

3.- Kontratazio organoak edo kontratazio mahaiak, edozein unetan, dokumentu bidezko justifikazioa eskatu ahal izango dute, lizitatzaileek, erantzukizunpeko adierazpen bitartez, betetzen dituztela adierazitako baldintzei buruz. Lizitatzaileak behar besteko epea izango du dokumentazio eskatua aurkezteko.
Epe hori ezingo da 10 egun baliodunetik gorakoa izan, errekerimendua jaso eta biharamunetik kontatzen hasita.
Errekerimendua ez bada behar bezala aurkezten aipatu epean, ulertuko da lizitatzaileak kendu egin duela bere eskaintza eta, horrenbestez, prozeduratik kanpo geratuko da.

15. KONTRATAZIO MAHAIA ETA GUTUN-AZALA IREKITZEA

1.- Kontratazio Mahaia honako kide hauek osatuko dute:

Lehendakaria: Mankomunitateko lehendakaria

Mahaikideak: Ingurumen Zerbitzuko teknikari arduraduna
Mankomunitateko idazkari-kontuhartzailea

Idazkaria: Mankomunitateko kontu-hartzailetzako AOT

2.- Proposamena jasotzen duen gutun-azala 145. artikuluan ezarritakoaren arabera dagokion hurrenkeran irekiko da, baldintza- agirian ezarritako adjudikazio-irizpideak baloratzeko aplikatu beharreko metodoaren arabera. Kontratazio-mahaiak irekiko du. Kontratazio-mahaiaren jarduketa egokitu egingo da lizitatzaileak eskaintza egitean aurkeztu behar dituen gutun-azalen arabera, aurreko klausulan adierazitakoaren arabera.
3.- Lizitatzaileak gutun-azal bakarra aurkeztu behar duenez, balio-judizio baten arabera kuantifikatu beharreko esleipen-irizpiderik ez dagoelako prozeduran, kontratazio-mahaiak, ekitaldi publikoan, proposamena ireki eta irakurriko du.

Bilkura berean, mahaiak lizitatzaileek aurkeztutako deklarazioa kalifikatuko du.
Ahal bada, bilkura berean, baldintza-agiriko eskakizunak betetzen ez dituzten eskaintzak baztertu ondoren, mahaiak eskaintzak ebaluatu eta sailkatuko ditu.

ESKUbae7aa58-e324-49c8-bdd9-f789f56da744

Ustez anormaltasuna duten eskaintzak identifikatzen badira, mahaiak 149. Artikuluan aurreikusitako prozedurari jarraituko dio.

Ondoren, puntuazio onena duen hautagaiaren aldeko esleipen-proposamena egingo du Mahaiak. Esleipendun gisa proposatutako lizitatzaileari dagokionez, mahaiak Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean egiaztatuko du enpresa behar bezala eratuta dagoela, proposamenaren sinatzaileak eskaintza egiteko ahalmen nahikoa duela, kaudimen ekonomiko, finantzario eta teknikoa duela edo, hala badagokio, dagokion sailkapena duela, eta kontratatzeko inolako debekurik ez duela.
Era berean, Mahaiak puntuaziorik onena lortu duen enpresari eskatuko dio adjudikaziorako behar den dokumentazioa, bai eta, hala badagokio, Lizitatzaileen Erregistroan inskribatuta ez dagoen beste edozein dokumentazio ere, baldintza-agiri ezarritakoaren arabera

16. ESLEITZEKO IRIZPIDEAK

Honako irizpide hauek hartuko dira kontuan esleipena erabakitzeko:

I. IRIZPIDE AUTOMATIKOAK (Gehienez. 100 puntu):
A.- PREZIOA. Gehienez 75 puntu

Onartutako proposamenei dagozkien eskaintza ekonomikoen puntuazioen kalkulua interpolazio linealaren bidez egingo da, zerbitzua emateko eskaintza ekonomikoa barne hartzen duten bi puntuek definitutako zuzenaren arabera. 4 interpolazio-zuzen (eremu) definitzen dira, eskaintza ekonomiko onuragarrienaren arabera.

A eremua
Eskaintza ekonomiko merkeena, 75 punturekin batetik, eta eskaintza merkeenaren %75eko jaitsiera eta 67,5 puntu (puntuen %90) bestetik, bi puntu hauenen artean definitutako zuzena.

B eremua
Eskaintza merkeenaren %75eko jaitsiera eta 67,5 puntu (puntuen %90) batetik; eskaintza merkeenaren %50eko jaitsiera eta 56,25 puntu (puntuen %75) bestetik, bi puntu hauenen artean definitutako zuzena.

Nafarroa etorbidea 17 - ☎ 943793399 - debagoiena@debagoiena.eus - www.debagoiena.eus


ESKUbae7aa58-e324-49c8-bdd9-f789f56da744

C eremua

Eskaintza merkeenaren %50eko jaitsiera eta 56,25 puntu (puntuen %75) batetik; eskaintza merkeenaren %25eko jaitsiera eta 37,5 puntu (puntuen %50) bestetik, bi puntu hauenen artean definitutako zuzena.

D eremua

Eskaintza merkeenaren %25eko jaitsiera eta 37,5 puntu (puntuen %50) batetik; lizitazio prezioa eta 0 puntu bestetik, bi puntu hauenen artean definitutako zuzena.



Hasiera batean, honako kasu hauetan dauden eskaintzak hartuko dira **neurriz kanpokotzat edo ausarkeriazkotzat:**

1. Lizitatzaile bakar batek parte hartzen duenean, baina lizitazioaren oinarrizko aurrekontua baino ehuneko 25 txikiagoa denean.

2. Bi lizitatzaile aurkezten direnean, beste eskaintzatik ehuneko 20 baino gutxiago dena.

3. Hiru lizitatzaile aurkezten direnean, aurkeztutako eskaintzen batez besteko aritmetikoa baino ehuneko 10 txikiagoak direnak. Hala ere, batez besteko hori zenbatzeko, zenbateko handieneko eskaintza baztertuko da, baldin eta batez besteko hori baino ehuneko 10 unitate handiagoa bada. Nolanahi ere, ehuneko 25 baino gehiagoko baja neurriz kanpokotzat joko da.

4. Lau lizitatzaile edo gehiago aurkezten direnean, aurkeztutako eskaintzen batez besteko aritmetikoa baino ehuneko 10 edo gehiago txikiagoak direnak. Hala ere,

ESKUbae7aa58-e324-49c8-bdd9-f789f56da744

horien artean ehuneko 10 unitate baino gehiagoko eskaintzak badaude, batez besteko berri bat kalkulatuko da adierazitako kasuan ez dauden eskaintzekin bakarrik. Nolanahi ere, gainerako eskaintzak hiru baino gutxiago badira, zenbateko txikieneko hiru eskaintzen gainean kalkulatuko da batez besteko berria.

Nolanahi ere, deklarazioa egiteko, kontratazio-organoaren erabakia beharko da, ustez bertan sartuta dauden lizitatzaile guztiei informazioa eskatu ondoren, bai eta dagokion zerbitzuaren aholkularitza teknikoa ere. Baztertu egingo dira langile-kostuei dagokienez aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboa beteko dela bermatzen ez duten proposamenak.

Eskaintza bat anormalki neurriz kanpokotzat edo ausarkeriakotzat dela uste den kasuan, kanporatua izan daiteke,SPKLen 149 artikuluan ezarritako prozedura jarraitu ondoren.

B.- ENAC-EK EDO BALIOKIDE BATEK INSPEKZIO ENTITATE EDO SAIAKUNTZEN LABORATEGI GISA AKREDITATUAK DITUEN PARAMETRO ANALITIKOEN KOPURUA: Gehienez 25 puntu

Puntuazioak egiaztatutako parametroen arabera kalkulatuko dira, interpolazio linealaren bidez, bi puntuek definitutako zuzenaren arabera (akreditaturiko parametro analitikoen gehienezko kopurua 48 da, ondorengo taulan adieraziak):

- P1 (taulan zehazturiko parametro gaitu guztiak: gehieneko puntuazioa 25 puntu)
- P2 (parametro gaitu bat ere ez, gutxieneko puntuazioa, 0 puntu) eta zuzenaren segmentuen barruan, haiek mugatuta

<u>Baloraziotik salbuetsita geratuko dira ondorengo parametroak:</u>

Erredox potentziala, toxiko metalikoak, maila piezometrikoa, solido lodiak eta pestizidak.

	Parametroak	**Akreditazioa (BAI / EZ)**	**Adierazi akreditazio eremua: (Ur kontinentalak / Hondakin urak / Aurreko biak)**
1	Aldehidoak		
2	Aluminioa (Al)		
3	Amonioa ($N\text{-}NH_4^+$)		
4	AOX		
5	Artsenikoa (As)		
6	Barioa (Ba)		
7	Beruna (Pb)		
8	Boroa (B)		

ESKUbae7aa58-e324-49c8-bdd9-f789f56da744

	Parametroak	**Akreditazioa (BAI / EZ)**	**Adierazi akreditazio eremua: (Ur kontinentalak / Hondakin urak / Aurreko biak)**
9	Burdina (Fe)		
10	DBO_5		
11	Detergenteak		
12	DQO		
13	Emaria*		
14	Eroankortasuna*		
15	Eztainu (Sn)		
16	Fenolak		
17	Fluoruroak (F^-)		
18	Fosforo totala (P total)		
19	Kadmioa (Cd)		
20	Karbono organiko disolbatua (COD)		
21	Karbono organiko guztia (COT)		
22	Kloruroak (Cl^-)		
23	Kobrea (Cu)		
24	Kolorea		
25	Kromo III		
26	Kromo totala/ Cr VI (galeriaren kasuan)		
27	Magnesioa (Mg)		
28	Manganesoa (Mn)		
29	Merkurioa		
30	Molibdenoa (Mo)		
31	Nikela (Ni)		
32	Nitratoak ($N\text{-}NO3^-$)		
33	Nitrogeno totala		
34	Olioak eta koipeak		
35	Oxigeno disolbatua*		
36	pH*		
37	Selenioa (Se)		
38	Silizea (SiO_2)		
39	Solidoak: esekitakoak (SST)		
40	Solidoak: disolbatuak (TSD)		
41	Solidoak: jalkidurazkoak		
42	Sulfatoak ($SO4^=$)		
43	Sulfitoak		
44	Sulfuroak		
45	Tenperatura*		
46	Uhertasuna		

ESKUbae7aa58-e324-49c8-bdd9-f789f56da744

	Parametroak	**Akreditazioa (BAI / EZ)**	**Adierazi akreditazio eremua: (Ur kontinentalak / Hondakin urak / Aurreko biak)**
47	Zianuroak		
48	Zinka (Zn)		
	-**Akredituriko parametroak guztira**		

17. KONTRATUA ESLEITZEA ETA ESLEIPENA JAKINARAZTEA.

- ***17.1 Eskaintzen sailkapena eta esleipen proposamena.***

Eskaintzak baloratutakoan, Kontratazio mahaiak Kontratazio organoari bidaliko dio, aktarekin batera, dagokion esleipen proposamena.

Hartan beheranzko hurrenkeran antolatuak agertuko dira eskaintzak, aurreko klausulan ezarritako esleipen irizpideak aplikatuta haietako bakoitzari emandako puntuazioa barne, eta kalitate-prezio erlazio hoberena duen eskaintza bereizita.

- ***17.2 Eskaintzarik hoberena aurkeztu duen lizitatzaileak aurretiazko baldintzak betetzen dituela arrazoitzen duen dokumentazioaren aurkezpena***

1.- Esleipen-proposamena erabaki ondoren, **errekerimendua egingo zaio** SPKLen 145 artikuluaren ezarritakoaren arabera eskaintza hoberena aurkeztu duen lizitatzaileari, zazpi (7) egun balioduneko epean, errekerimendua jaso ondorengo egunetik kontatuta, ondorengo dokumentazioa aurkez dezan:

a) Lizitatzailearen nortasuna egiaztatzeko dokumentuak:

- **Lizitatzailea pertsona juridikoa bada,** nortasuna Osaera, edo hala badagokio, aldaketa eskritura bidez egiaztatuko da, baldintza hori eskatzen den kasuetan.

Bestela, osaera dokumentua, estatutuak edo sortze ekintza aurkeztu beharko du jarduera arautzen duten arauak jasota, dagokion

Erregistro Ofizialean inskribatua, hala behar izanez gero. Pertsona juridikoak bakarrik izan daitezke esleipendun beren estatutuen edo sortze arauen arabera dagozkien helburuen eta jarduera esparruaren barneko prestazioak jasotzen dituzten kontratuak direnean, eta kontu horrek egiaztatuta egon behar du aurkeztutako dokumentazioan.

- **Lizitatzailea pertsona fisikoa bada**, Nortasun Agiri Nazionala edo baliokide den dokumentuaren bitartez.

b) Eskaintzaren sinatzailearen ordezkaritza egiaztatzen duen dokumentazioa (pertsona horrek beste pertsona fisiko edo juridiko baten izenean jarduten duenean)

c) Zerga eta Gizarte Segurantzako obligazioak betetzen dituela egiaztatzen duten

Nafarroa etorbidea 17 - ☎ 943793399 - debagoiena@debagoiena.eus - www.debagoiena.eus

ESKUbae7aa58-e324-49c8-bdd9-f789f56da744

justifikazio dokumentuak.

d) Ekonomia jardueren gaineko zerga: Ekitaldi honi dagokion alta, edo azken ordainagiria, aipatutako zergaren matrikulan baja eman ez izanari buruzko ardurapeko adierazpenarekin batera, eta, hala badagokio, salbuetsita izanaren gaineko ardurapeko adierazpena.

e) Plegu honetako 12. Klausulan zehaztutako kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa egiaztatzeko dokumentazioa.

f) Dagokion behin-betiko bermearen aurkezpena.

g) Kontratuaren gauzatzeari baliabideak atxikitzeko konpromisoa, hala badagokio.

h) Kontratua gauzatzeari atxikitako pertsonalari eskatzen zaizkien titulazio akademikoak, profesionalak edo linguistikoak, hala dagokionean.

2.- Aurretik xedatutakoa ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan inskribatu izanaren ziurtagiria aurkeztuz gero, enpresa lizitatzailea salbuetsita gelditukо da, hartan jasotakoaren arabera eta aurkakoa frogatu ezean, erregistroan jasotako zirkunstantziei buruzko frogagiriak aurkeztetik. Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroko inskripzioaren ziurtagiria aurkezteak SPKLren 87.2 eta 96.artikuluetan eta SPKL neurri batean garatzen duen maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretuaren 19. artikuluan aurreikusitako ondorioak izango ditu. Ziurtagiriekin batera, erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko da, non azalduko den ziurtagirian adierazitako zirkunstantziak ez direla aldatu. Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroko inskripzioan frogatu beharreko baldintzetako bat jasota agertzen ez denean, enpresak SPKLn ezarritako bitartekoetako bat erabiliz frogatu beharko du.

3.- Debagoieneko Mankomunitateak ofizioz egingo ditu, betiere ahal den neurrian, atal horietan eskatzen diren alderdi guztiak egiaztatzeko dagozkion jarduketak. Bestela, aipatutako dokumentazioa aurkezteko eskatuko du.

4.-Errekerimendua adierazitako epean behar bezala bete ezean, ulertuko da lizitatzaileak kendu egin duela bere eskaintza; kasu horretan, lizitazioko oinarrizko aurrekontuaren %3 ari dagokion zenbatekoa (BEZa kanpo) eskatuko zaio zehapen modura. Kasu horretan dokumentazio bera eskatuko zaio eskaintzak sailkatuta geratu diren ordenaren araberako hurrengo lizitatzaileari.

17.3 Esleipena

1.- Behin betiko bermea jarri eta aipatutako dokumentazioa aurkeztu ondoren, kontratazio-organoak dokumentazioa jaso ondorengo hurrengo bost egun

Nafarroa etorbidea 17 - ☎ 943793399 - debagoiena@debagoiena.eus - www.debagoiena.eus

ESKUbae7aa58-e324-49c8-bdd9-f789f56da744

baliodunetan esleituko du kontratua.

2.- Esleipena motibatua izango da, izangai edo lizitatzaileei jakinaraziko zaie baliabide elektroniko bitartez eta, aldi berean, Debagoieneko Mankomunitateko kontratugilearen profilean argitaratuko da www.debagoiena.eus.

3.- Jakinarazpenean eta kontratugilearen profilean, Sektore Publikoko Kontratuen, azaroaren 8ko, 9/2017 Legearen 153.3 artikuluaren arabera zein epetan formalizatu behar den adieraziko da.

4.- Kontratuaren esleipena honako gehieneko epean egingo da: 15 egun natural, esleitzeko irizpide bakarra prezioa bada, edo bi hilabete, beste irizpiderik ezarri bada, proposamenak ireki ondorengo egunetik kontatuta. Ezarritako epean esleipen-erabakirik ematen ez bada, lizitatzaileek eskubidea izango dute beren eskaintza kentzeko.

18. KONTRATUAREN FORMALIZAZIOA

1.- Kontratua dokumentu administratiboan formalizatu beharko da, esleipenaren jakinarazpena egin ondorengo hurrengo hamabost egun baliodun baino geroago ez. Nahikoa titulu izango da agiri hori, edozein erregistro publikotara sartzeko. Hala ere, kontratistak kontratua eskritura publiko bihurtzea eskatu ahal izango du, eta bere kargura izango dira horri dagozkion gastuak.

2.- Formalizatu ondoren osatzen da kontratua.

3.- Kontratuaren formalizazioa, Debagoieneko Mankomunitatearen kontratugilearen profilean (www.debagoiena.eus) argitaratuko da.

19. KONTRATUAREN EGIKARITZEA

1.- Kontratazio organoak, kontratua esleitzeko ebazpenean, kontratuaren arduraduna izendatuko du. Pertsona horren eginkizuna izango da kontratua betetzen dela ikuskatzea eta beharrezko erabakiak hartu eta jarraibideak ematea, hitzartutako prestazioa behar den moduan eta egoki gauzatuko dela ziurtatzearren.

Kontratuaren arduraduna izango da enpresa esleipendunaren eta kontratazio organoaren arteko solaskidea.

2.- Lanak ezingo dira hasi, kontratistak kontratua sinatzen duen arte.

3.- Kontratista behartuta dago kontratua betetzera lanak egiteko finkatuta dagoen epe barruan, baita, bere kasuan, zehaztu diren zatiko epeak. Kontratista berandutzeak ez du Administrazioaren aldetik aurrez abisatu beharra ekarriko. Kontratista, berari egoztekoak diren arrazoiak tarteko, epea bere osotasunean betetzerakoan berandutu

ESKUbae7aa58-e324-49c8-bdd9-f789f56da744

egin bada, Administrazioak kontratua suntsitzeko edo SPKLen 193. artikuluan aurreikusitako zigorrak jartzeko erabakia hartu ahal izango du.

4.- Kontratistak kontratua bere “arrisku eta kontura” onartzen duela ulertuko da, SPKLen 197. artikuluaren arabera.

20. KONTRATUAREN EXEKUZIO BALDINTZA BEREZIAK

Kontratuaren exekuziorako baldintza berezi dira:

20.1 Kontratuaren exekuzio epean, esleipendun enpresak ondoko zereginak burutu beharko ditu:

- Jatorrizko instalazio, laginketa puntu eta laborategiaren arteko joan-etorrien erregistro eguneratua mantendu.
- Joan-etorri hauei dagozkien isurtegi efektuko gasen emisioa kalkulatu.
- Urte amaieran gasen emisio erregistro hau aurkeztu, emisioa hauek murrizteko balizko neurriak aurkeztuaz eta Mankomunitatearekin adostutako neurri zehatzak ezarriaz.
- Urtez urteko gas emisioen jarraipenerako erregistroa eraman, hauen eboluzioa aztertzeko.

20.2.- BETEBEHAR SOZIALAK

20.2.1.- HIZKUNTZA-ESKAKIZUNAK

Baldintza berezia izango da baldintza-agiri honetako 7. klausulako i) idatz-zatian hizkuntza-ofizialtasun bikoitzari buruz ezarritako betebeharra.

Horrez gain, esleipendunak Administrazioarekin eta hirugarrenekin harremana duen neurrian, kontratatutako enpresako langileek administrazioak berak bete beharko lituzkeen pareko baldintzak bermatu beharko dituzte.

Kontratuaren xede diren azterlan, txosten, proiektu eta bestelako lanak euskaraz egingo dira, softwareetako testuzko eta soinuzko interfazeak barne.

Enpresa esleipendunak administrazioaren hizkuntz araudiaren arabera jokatuko du, kontratuaren xede diren jarduera guztietan; eta beraz, enpresak administrazioarekin dituen ahozko zein idatzizko harremanak administrazioaren lan hizkuntzaren araberakoak izango dira.

20.2.2.- GENERO IKUSPEGIA

Enpresa esleipendunak genero-ikuspegia sartu beharko du programatutako jarduera eta ekitaldi guztietan, genero-berdintasuna sustatzeko legez ezarritakoarekin bat etorriz, emakumeen eta gizonen beharrak eta interesak kontuan hartuta.

Era berean, hizkuntza- eta irudi-erabilera ez da sexista izango, eta estereotipo

ESKUbae7aa58-e324-49c8-bdd9-f789f56da744

sexistarik gabeko materialak eta jarduerak sortuko dira, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatuko dutenak, betiere indarrean dagoen Debagoieneko Mankomunitatearen Berdintasunerako Planak ezartzen duenarekin bat etorriz.

Horrez gain, genero-ikuspegia txertatzea eta emakumeentzat eta gizonentzat gizarte berdinzaleago eta bidezkoago bat sustatzen laguntzea baloratzen da, xedearekin lotuta.

20.3.- GUTXIENEKO LAN-BALDINTZAK

1.- Kontratu honek bete beharko ditu indarrean dauden legezko, erregelamenduzko eta hitzarmenezko hainbat xedapen, betiere lan-arloan, Gizarte Segurantzaren arloan eta laneko segurtasunaren eta osasunaren arloan aplikatzekoak badira.

2.- Lizitatzaileek adierazi beharko dute, esleipena jasoz gero, kontratuaren xede den jardueran arituko diren langileei aplikatuko zaien hitzarmen kolektiboa.

Halaber, eskatzen den informazio guztia ematera behartuta egongo dira, behin kontratua esleitu eta gero, langileei benetan aplikatuko zaizkien lan-baldintzei buruz.

3.- Esleipendunak, kontratua gauzatzen duen bitartean, dagokion hitzarmen kolektiboko lan-baldintzak aplikatu beharko ditu gutxienez, eta hitzarmen horretan jasotako soldata ordaindu beharko du gutxienez, langileari dagokion lanbide-kategoriaren arabera.

20.4.- DATU-PERTSONALEN BABESA

Kontratuaren exekuzio-baldintza berezia izango da, Plegu honetako 7. Klausulako k) atalean ezarritako betebeharra, pertsonal izaerako datuen tratamenduari buruzkoa.

Betebehar hauetako edozein ez betetzea arau-hauste oso larri izango da, eta kontratua suntsitzeko arrazoi izan daitezke larriduraren arabera.

21. ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA

Kontratistak aseguru-poliza hauek sinatu beharko ditu bere kontura:

Erantzukizun zibileko asegurua, kontratua gauzatzearen ondorioz hirugarren pertsonei eta instalazioei eragindako kalte-galerengatik sor daitezkeen erantzukizunak bermatuko dituena, kontratuaren balio zenbatetsiaren gutxieneko zenbatekoarekin. Estaldura horrek indarrean jarraitu beharko du kontratuak irauten duen bitartean, luzapenak eta bermealdia barne.

Nafarroa etorbidea 17 - ☎ 943793399 - debagoiena@debagoiena.eus - www.debagoiena.eus

ESKUbae7aa58-e324-49c8-bdd9-f789f56da744

Debagoieneko Mankomunitatea aseguratutzat hartuko da hirugarren baten izaera galdu gabe.

Aseguru horietan frankiziak edo kanpoan utzitako arriskuak ezartzen badira, enpresa esleipendunak ordainduko ditu horiei dagozkien kalte-ordainak. **Polizen ziurtagiria kontratua formalizatu aurretik entregatuko da**; beraz, ez da beharrezkoa izango polizak gutun-azaletan sartzea.

22. SUBROGAZIOA LAN KONTRATUETAN

Ez dago subrogatu beharreko langilerik kontratu honetan.

23. AZPIKONTRATAZIOA

Kontratuaren xede diren prestazioen azpikontratazio partziala baimentzen da, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 215. artikuluan ezarritako baldintzetan.

Azpikontratazioa egiteko, oinarrizko baldintza hauek bete beharko dira:

a) Esleipendunak egin nahi duen azpikontratu bakoitzari buruzko datu hauek Debagoieneko Mankomunitateari aldez aurretik eta idatziz jakinaraztea:

- Azpikontratistaren identifikazioa, bere nortasunari, gaitasunari eta kaudimenari buruzko datuekin.
- Azpikontratistak egin beharreko kontratu- zatien identifikazioa.
- Azpikontratatu beharreko prestazioen zenbatekoa.

b) Ezin izango da azpikontratatu administrazioarekin kontratuak egiteko desgaituta dauden pertsona edo enpresekin, ezta azpikontratatzen diren prestazio zehatzak gauzatzeko behar den gaitasun, kaudimen eta gaikuntza profesionalik ez dutenekin ere.

c) Azpikontratatzen duen kontratistak, azpikontratatuko dituen lanak hasi aurretik, egiaztatu beharko du lan horiek egingo dituzten langileak Gizarte Segurantzan afiliatuta eta alta emanda daudela, Ezkutuko enplegua erregularizatzeko eta kontrolatzeko eta etxebizitzen birgaitzea sustatzeko neurriei buruzko apirilaren 29ko 5/2011 Errege Lege Dekretuan ezarritakoa betez.

d) Kontratistak azpikontratazioaren berri eman beharko die langileen ordezkariei, lan-arloko legeriaren arabera.

e) Azpikontratistek kontratista nagusiaren aurrean bakarrik izango dituzte betebeharrak, eta hark hartuko du bere gain kontratua gauzatzeko erantzukizun osoa Mankomunitatearen aurrean, administrazio-klausula partikularren agiriei eta

ESKUbae7aa58-e324-49c8-bdd9-f789f56da744

kontratuaren baldintzei zorrotz jarraituz, eta Mankomunitateak azpikontratazioak daudela jakiteak ez du eraginik izango kontratista nagusiaren erantzukizun esklusiboan.

f) Kontratistak hitzartutako prezioa ordaindu beharko die azpikontratistei egiten dituzten prestazioengatik, gutxienez abenduaren 29ko 3/2004 Legean aurreikusitako epeetan (lege horren bidez, merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurka borrokatzeko neurriak ezartzen dira). Hori betetzen dela bermatzeko, Mankomunitateari egindako fakturazio bakoitzarekin, kontratistak kontratu honen esparruan azpikontratatu dituen enpresek edo autonomoek aurreko hilabetean egindako lanen ordainagiria aurkeztu beharko du.

24. ZEHAPENEN ERREGIMENA

1.- Arau hausteak.

Oso larriak, larriak edo arinak izango dira kontratistak kontratua gauzatzen duen bitartean egiten dituen arau-hausteak.

a) **Oso arau hauste larriak** izango dira honako hauek:

-Zehaztutako epean zerbitzua ematen ez hastea, edo zerbitzua emateari uztea, ezinbesteko arrazoiak daudenean izan ezik.

- Zerbitzuak osorik edo zati batean lagatzea, azpierrentan ematea edo eskualdatzea, Mankomunitatearen berariazko baimenik gabe.

-Plegu honetan ezarritako edozein baldintza edo obligazio ez betetzea, gerora hortik erator daitezkeen egintzen kalterik gabe.

- Baliabide nahikoak atxikitzeko eskatu diren konpromisoak ez betetzea.

-Kontratua gauzatzeko dauden baldintza bereziak ez betetzea.

-Pleguan ezarritako baldintzak eta obligazioak ez betetzea, kalte larria eragin duenean.

-Esleitzeko irizpideei lotuta dauden eskaintzaren ezaugarriak ez betetzea.

-Lanak argi eta garbi gaizki edo modu irregularrean egitea.

-Prestazioaren zaintzaz arduratzen den Zerbitzuko arduradunek emaniko aginduak ez betetzea, lanaren garapenari dagokionez, eta oro har, lan horien prestazioa erregulatzen duten arauak ez betetzea.

-Kontratatutako pertsonen gorabeherak zerbitzuaren jasotzaileekin eta herritarrekin orokorki, bai tratu desegokia eman delako eta bai lana behar bezala egin ez delako.

- Mankomunitateak, plegu honetako ezarritakoaren arabera, esleipendunari eskatzen dion informazioa ez ematea (kontratua esleitu eta gero, kontratuari atxekitako langileei benetan aplikatzen zaizkien lan-baldintzei buruzkoa).

ESKUbae7aa58-e324-49c8-bdd9-f789f56da744

-Bi arau-hauste larri edo gehiago egitea.

b) Arau hauste larriak izango dira:

-Atzerapen ez sistematikoa, lanak egiterakoan.

-Plegu honetan ezarritako edozein baldintza edo obligazio, oso larritzat kalifikatu gabe dagoena, ez betetzea.

-Kontrataturiko langileen eskura Mankomunitateak jarritako baliabide materialak eta azpiegiturak behar bezala ez erabiltzea.

- Mankomunitateak, plegu honetan ezarritakoaren arabera, esleipendunari eskatzen dion informazioa epean edo modu egokian ez ematea (kontratua esleitu eta gero, kontratuari atxekitako langileei benetan aplikatzen zaizkien lan-baldintzei buruzkoa).

-Behin eta berriz akats arinak egitea.

c) Arau hauste arinak izango dira aurreko horietan aurreikusi ez diren gainerako guztiak eta, nolabait ere, baldintza plegu honetan zehaztutako baldintzen kalterako direnean, zerbitzuan kalte larririk eragiten ez badute.

2. Zehapenak.

Honako zehapen hauek jarri ahal izango zaizkio kontratistari:

a) Arau hauste oso larriengatik: kontratuaren adjudikazio-zenbatekoaren %5 (BEZik gabe).

b) Arau hauste larriengatik: kontratuaren adjudikazio-zenbatekoaren %3 (BEZik gabe).

c) Arau hauste arinengatik: kontratuaren adjudikazio-zenbatekoaren %1 (BEZik gabe).

Hala eta guztiz ere, arau hauste oso larriak direnean, Debagoieneko Mankomunitateak erabaki ahal izango du zehapenak jarriko dituen, klausula honetan aurreikusitakoaren arabera, edo kontratua suntsitzeko dagokion espedientea hasiko duen, edota biak.

3. Eskumena eta ordainketa

Zehapen hauek, Kontratuaren erantzuleak proposatuta, Lehendakaritzak emaniko Ebazpenaren arabera jarriko dira, arau-hauste arinak eta larriak direnean, eta, oso arau-hauste larriak direnean, kontratazio organoak jarriko ditu, aurrez dagokion espedientea izapidetu ondoren. Kasu horretan kontratistari audientzia emango zaio, eta hala badagokio, abal-emaileari.

Zehapen hauek, posible den heinean, kontratugileari egin beharreko ordainketetatik kenketa eginez ordainduko dira edo bermetik kenduaz, ordainketetatik kendu ezin

ESKUbae7aa58-e324-49c8-bdd9-f789f56da744

direnean.

4.- Kalte ordainen erreklamazioa:

Bermea galtzeak edo zigorren zenbatekoa ordaintzeak ez du eragozten kontratistaren berandutzak edo berari egotzi dagokiokeen beste arrazoiren batengatik eragindako kalte eta galerengatik Administrazioak kalte-ordaina jasotzeko eskubidea izatea

25. BERMEALDIA

Bermea Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 111. artikuluan xedatutakoaren arabera itzuliko edo ezereztuko da, bermearen epea amaitu eta gero, eta esleipendunak kontratuko bere betebehar guztiak bete eta gero.

26. PREZIOEN BERRIKUSPENA

Kontratu honetan ez da prezioen berrikuspenik egingo, SPKLren 103.1 artikuluari jarraituz.

27. KONTRATUAREN ALDAKETA

1.- Behin kontratua burutzen denean interes publikoko arrazoiengatik bakarrik aldatu ahal izango da klausula honetan ezarritako kasuetan edo SPKLen 205. artikuluan ezarritako kasuetan eta bertan ezarritako mugekin.

Kontratuan aldaketak sartu behar direnean, kontratuaren zuzendaritzak beharreko proposamena idatziko du, hura justifikatzen, deskribatzen eta baloratzen duten dokumentuek osatua. Administrazioak aldaketa onartu aurretik enpresa kontratistari entzun beharko zaio. Kontratazio organoak onartu beharko ditu aldaketak, SPKLen 191. eta 207. artikuluetan aurreikusitako prozedura tramitatu eta SPKLen 153. artikuluan xedaturikoaren arabera dokumentu administratiboa formalizatu ondoren, behin betiko bermea berregokituta, hala behar badu.

Aldaketa horiek derrigorrezkoak izango dira kontratistarentzat baldin eta, banaka edo denek batera, zenbatekoan aldaketa bat eragiten badute, eta aldaketa horrek ez baldin badu kontratuaren hasierako prezioaren %20 gainditzen, BEZa kanpo. Zenbatekoa dela eta, aldaketa ez bada derrigorrezkoa kontratistarentzat, aldaketa horretarako haren berariazko adostasuna beharko da.

2.- Prezio unitarioak dituzten kontratuen kasuan, SPKLen 309. artikuluaren arabera, ez da aldaketatzat joko prestazioa behar bezala aurrera eramaten den bitartean kontratuan aurreikusitakoen gainetik egiaz gauzatu diren unitateen kopuruan bakarrik

Nafarroa etorbidea 17 - ☎ 943793399 - debagoiena@debagoiena.eus - www.debagoiena.eus

ESKUbae7aa58-e324-49c8-bdd9-f789f56da744

gertatzen denean aldaketa hori, eta haiek kitapenean jaso ahal izango dira, baldin eta kontratuaren prezioaren %10 baino gastu igoera handiagoa eragiten ez badute.

28. KONTRATUA SUNTSIARAZTEA

Kontratua suntsiarazteko arrazoiak izango dira SPKLen 211. artikuluan oro har kontratu administratiboetarako aurreikusitakoak eta, era berean, Lege bereko 313. artikuluan bereziki zerbitzu-kontratuetarako jasotakoak.

Hiritarrei zuzenean emandako zerbitzuen kasuetan, aurretik adierazitakoaz gain kontratua suntsiarazteko arrazoia izango dira SPKLeko 294. artikuluko c, d, eta f) hizkietan ezarritakoak.

Era berean, kontratua suntsitzeko arrazoia izango da plegu honetako 20. Klausulan jasotako kontratua gauzatzeko baldintza bereziren bat ez betetzea.

29. ERREKURTSOEN ARAUBIDEA

1.- Kontratazio honi dagozkion ebazpen eta izapide-egintzei, azken horiek gaiaren oinarria zuzenean edo zeharka erabakitzen badute, prozedura jarraitzeko ezintasuna erabakitzen badute, eskubide eta interes legitimoetan konpon ezinezko defentsa-gabezia edo kaltea eragiten badute, aukerako izaeraz, urriaren 1eko, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen bitartez araututako administrazioarekiko birjarpen errekurtsoa aplikatuko zaie, edo Administrazioarekiko Auziaren Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean araututako administrazioarekiko auzi errekurtsoaren xede izango dira.

2.- Interesatuek gainerako izapide-egintzen aurkako jarrera alegatu ahal izango dute, prozedurari amaiera emango dion ebazpenean kontuan har dadin.

30. KONTRATAZIO PROZEDURAN ERABILI BEHARREKO KOMUNIKABIDEAK

SPKLen 140.1.4. artikuluan eta 15. Xedapen gehigarrian xedaturikoaren arabera, kontratazio prozeduran egin behar diren komunikazioak eta jakinarazpenak baliabide elektronikoen bidez egingo dira, plegu honetako I. Eranskinean ezarritakoaren arabera. Bitarteko elektroniko bidezko jakinarazpena errefusatua izan dela ulertuko da, jakinarazpena eskuratzeko moduan jarri eta 10 egun natural igaro direnean horren edukira sartu gabe; eta jakinarazpena Debagoieneko Mankomunitatearen egoitza elektronikoan eskuragarri jartzen denean, jakinarazpen betekizuna epe barruan bete dela ulertuko da.

ESKUbae7aa58-e324-49c8-bdd9-f789f56da744

31. KONFIDENTZIALTASUNA ETA DATUEN BABESA

1.- Kontratistak, kontratu hau gauzatzean eskuratzen duen informazioaren konfidentzialtasuna errespetatu beharko du, SPKLren 133.2 artikuluan xedatutakoa aplikatuz. Datu pertsonalak tratatzen dituen esleipenduna izango da datuen tratamenduaren arduraduna, eta datuen babesari buruz indarrean dagoen araudia betetzeko konpromisoa hartuko du.

2.- SPKLren 116.1 artikuluaren arabera, sektore publikoko erakundeek kontratistari datuak lagatzea eskatzen duten kontratuetan, kontratazio-organoak kontratazio-espedientean zehaztu beharko du zein izango den lagako diren datuen tratamenduaren helburua.

Zentzu honetan, kontratu honen esparruan egindako datu-lagapenaren helburua da Preskripzio teknikoen agirian eta plegu honetan zehaztutako betebehar publikoak betetzeko beharrezkoak diren lanak egitea.

3.- Behin kontratu-prestazioa beteta, tratatutako datu pertsonalak Debagoieneko Mankomunitateari eman eta beharko zaizkio.

32. PROPOSAMENAK AURKEZTEKO EPEA, EZAUGARRIAK ETA PLEGUETARAKO SARBIDEA

Lizitazio hau Mankomunitate honen kontratatzailearen profilean iragarriko da, zeina Euskadiko Kontratazio Publikorako Plataforman ostatatuta dagoen.

Proposamenak elektronikoki aurkeztu beharko dira aipatutako Plataformaren bitartez, aipatutako iragarkia agertu eta biharamunetik zenbatzen hasita 15 egun naturaleko epean, adierazitako epearen azken eguneko 14:00etara arte.

Mankomunitatearen kontratatzailearen profilean sartzeko, honako helbide hau erabili beharko da: www.debagoiena.eus. Gune horretan bertan pleguak eta dokumentazio osagarria eskuratu ahal izango dira.

Lizitatzaileek pleguei edo dokumentazio osagarriari buruzko informazio gehigarria eskatzen badute, informazio hori proposamenak jasotzeko ezarritako azken data baino sei egun lehenagoko epean emango da, baldin eta eskaera proposamenak jasotzeko lehen adierazitako azken data baino 12 egun lehenago egin bada.

Nafarroa etorbidea 17 - ☎ 943793399 - debagoiena@debagoiena.eus - www.debagoiena.eus

ESKUbae7aa58-e324-49c8-bdd9-f789f56da744

SPKLren 136.2 eta 3. artikuluan xedatutakoaren arabera, pleguei edo dokumentazio osagarriari buruzko informazio gehigarria ezin izan bada adierazitako epeen barruan eman, eta eskaintzak lekuan bertan bisita bat egin eta gero edo pleguari atxikitako dokumentazioa *in situ* kontsultatu eta gero baino ezin izan badira egin, eskaintzak jasotzeko epea luzatu egingo da, eragindako hautagaiek eskaintzak formulatzeko behar duten informazio guztia ezagutu ahal izateko komenigarritzat jotzen den denboran.

Lizitaziorako prozedura honetan ez da onartuko deskribatutako baliabide elektronikoen bidez aurkeztu ez den eskaintzarik. Ondorio horietarako, ezinbesteko baldintza da Euskadiko Kontratazio Publikorako Plataforman edo Sektore Publikoko Kontrataziorako Plataforman erregistratutako erabiltzailea izatea.

Eskaintzaren dokumenturen bat ezin bada behar bezala ikusi, onartu egingo da, gehienez ere egoera hori jakinarazi eta 24 orduko epean, lizitatzaileak fitxategi okerrean sartutako dokumentua modu digitalean aurkeztea. Ondoren aurkezten den dokumentuak ezin izango du aldaketarik izan eskaintzan sartutako jatorrizkoarekin alderatuta. Kontratazio Organoak egiaztatzen badu dokumentuan aldaketak egin direla, lizitatzailearen eskaintza ez da kontuan hartuko.

Proposamenek Administrazio Klausula Partikularren Plegu honetan xedatutakoa bete beharko dute, eta, aurkezteak esan nahi du Lizitatzaileak baldintzarik gabe onartzen dituela aipatutako klausulak edo baldintzak, inolako salbuespenik eta erreserbarik gabe, eta, halaber, baimena ematen diela Mahaiari eta Kontratazio Organoari Euskadiko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan eta Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean dauden datuak kontsultatzeko.

Lizitatzaile bakoitzak ezin izango du proposamen bat baino gehiago aurkeztu; horrek ez du esan nahi, ordea, aldaerarik onartuko ez denik. Halaber, ezin izango du beste lizitatzaile batzuekin batera enpresen aldi baterako elkartea eginez proposamenik aurkeztu aurretik bakarka aurkeztu badu, ezta aldi baterako elkarte bat baino gehiagotan egon ere. Arau horiek hautsiz gero, ez da onartuko lizitatzaile horrek izenpetutako proposamen bakar bat ere.

Nafarroa etorbidea 17 - ☎ 943793399 - debagoiena@debagoiena.eus - www.debagoiena.eus

ESKUbae7aa58-e324-49c8-bdd9-f789f56da744

Informazio publikoa eskuratzeari buruzko legedian xedatutakoaren kalterik gabe, eta hautagaiei eta lizitatzaileei esleipenaren inguruan eman beharreko publizitateari eta informazioari buruz SPKLn xedatutakoaren kalterik gabe, horiek konfidentzialtzat jo dezakete eskaintzak formulatzen dituztenean ematen duten informazioaren zati bat, bereziki sekretu teknikoei edo komertzialei eta alderdi konfidentzialei dagokienez. Mankomunitateak ezin izango du informazio hori jakinarazi dagokion lizitatzailearen baimenik gabe.

33. PROPOSAMENAK AURKEZTEKO MODUA

Lizitatzaileek **GUTUN AZAL ELEKTRONIKO** bakarra aurkeztu beharko dute, **«GAITASUNA, KAUDIMENA ETA ESLEITZEKO IRIZPIDEAK»** izenburuduna,lizitatzaileak edo haren ordezkariak sinatuta egongo dena eta ondoren xehatzen diren dokumentuak edukiko dituena.

Gutun azal elektroniko hau, dagokion dokumentazioarekin batera, elektronikoki aurkeztuko da, Plegu honen I. eranskinean xehatzen diren jarraibideen arabera.

a) Gaitutako helbide elektronikoa.

Helbide elektroniko bat egon behar da gaituta, SPKLren hamabosgarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera, kontratazio espediente honetatik eratortzen diren jakinarazpenak egiteko.

b) Lizitatzailearen erantzukizunpeko adierazpena, Sektore Publikoko Kontratuen 159.4.c) artikuluan xedatutako edukiarekin. (IV. eranskina)

Hala ere, Kontratazio Organoak edo Mahaiak, prozeduraren xede egokia bermatzeko, esleipena egin aurreko edozein unetan, lizitatzaileek dokumentazioa aurkezteko eskatu ahal izango du, plegu honetan kontratuaren esleipendun izateko aipatzen diren baldintzak betetzen dituztela egiaztatzeko.

ESKUbae7aa58-e324-49c8-bdd9-f789f56da744

c) Eskaintza aldi baterako enpresa elkarte batek aurkezten badu (ABEE), elkarteko kide bakoitzak bere erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko du. Era berean, kontratuaren esleipena lortuz gero, ABEEa formalki eratzeko konpromisoa gehitu beharko dute, eta ABEE horretan bakoitzak zein izen, baldintza eta partaidetzarekin parte hartzen duen zehaztu beharko dute.

d) Eskainitako zerbitzuari buruzko informazio hau xehatuko duen Memoria Teknikoa:

- Eskatutako parametroak analizatzeko erabilitako metodologia analitikoen fitxa teknikoa, dagozkion detekzio mugak zehaztuz.
- Laginak laborategira garraiatzeko erabiliko den prozeduraren deskripzioa.
- Analizatu beharreko laginak biltegiratzeko erabiliko diren flaskoen tipologia.

e) Balorazio automatikoko irizpideei buruzko dokumentu hauek:

- Proposamen ekonomikoa, III. eranskinean jasotako ereduaren arabera.

- ENACek (edo haren baliokidea den erakunde batek) akreditatutako parametro analitikoen dokumentazioa.

Legean eta plegu honetan eskatzen diren nortasun, gaitasun eta kaudimen baldintzak betetzen direla egiaztatzeko une erabakigarria proposamenak aurkezteko epearen amaiera izango da.

34. AURKEZTUTAKO DOKUMENTAZIOA IREKITZEA ETA TRATATZEA, ENPRESAK AUKERATZEA ETA ESKAINTZAK BALORATZEA

Proposamenak aurkezteko epea amaituta, honako hauek egingo dira:

1. GUTUN AZAL ELEKTRONIKOA IREKITZEA

ESKUbae7aa58-e324-49c8-bdd9-f789f56da744

Kontratazio Mahaiak, ekitaldi publiko batean eta kontratatzailearen profilean gutxienez 48 ordu lehenago argitaratuko den leku, egun eta orduan, gutun azalaren irekiera elektronikoa egingo du, kontratu hau eskuratzeko baldintzak betetzeari buruz bertan gordetzen den dokumentazioa egiaztatuko du, eta eskaintza ekonomikoaren datuak eta balorazio automatikoko gainerako esleipen irizpideak emango ditu ezagutzera.

Ekitaldi publiko horren ostean, baina saio berean, Mahaiak jarduketa hauek gauzatuko ditu:

1.- Pleguan jasotako baldintza eta betekizunak betetzen ez dituzten eskaintzak, hala badagokio, baztertzea.

2.- Formulak erabiliz, automatikoki ebaluatzeko edo zenbatzeko moduko irizpideak baloratzea.

3.- Eskaintza bakoitzak lortutako puntuazio totala zehaztea eta eskaintzak puntuazio handienekotik txikienekora sailkatzea.

4.- Puntuaziorik onena duen lizitatzailearen aldeko esleipen proposamena egitea.

Kontratua esleitzeko proposamenak ez du inolako eskubiderik sortzen proposatutako lizitatzailearen alde, eta ez du horrelako eskubiderik bereganatuko, Administrazioaren aurrean, kontratua formalizatzen den arte.

Baldin eta puntuaziorik onena lortu duen lizitatzailearen eskaintza baxuegitzat jotzen bada 149. artikuluan jasotzen denarekin bat datorrelako, aipatutako artikuluan xedatutako prozedurari jarraituko dio Mahaiak; dena den, lizitatzaileak bere eskaintza justifikatzeko izango duen gehieneko epea ez da 5 egun baliodunetik gorakoa izango, dagokion komunikazioa bidaltzen denetik zenbatzen hasita.

Egindako guztiaren berri emango da espedientean, derrigor idatziko diren

ESKUbae7aa58-e324-49c8-bdd9-f789f56da744

aktetan jasota.

5.- Euskadiko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan edo Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean sartzea eta, kontratuaren esleipendun izateko proposatutako lizitatzaileari dagokionez, haren nortasunari, gaitasunari, kaudimenari eta kontratatzeko debekuei buruzko datuak benetakoak diren egiaztatzea.

6.- Kontratuaren esleipendun izateko proposatu den lizitatzaileari eskatzea, komunikazio elektroniko bidez, komunikazio hori bidaltzen den egunetik zenbatzen hasi eta zazpi egun balioduneko epean ondoren adierazten diren jarduketak egiteko edo dokumentu hauek aurkezteko:

a. Behin betiko bermea eratu izanaren egiaztagiria.

b. Behar diren baliabideak lizitatzaileari maileguz emango dizkioten erakundeen konpromisoa, hala badagokio, aurkeztea, SPKLren 75.2 artikuluan xedatutakoaren arabera.

c. Hala badagokio, kontratua gauzatzeko hitzemandako baliabideak egiazki edukitzearen egiaztagiriak, SPKLren 76.2 artikuluaren arabera.

d. Hala badagokio, dagokion Lizitatzaile Erregistroan inskribaturik ez dagoen kaudimenari buruzko beste edozein dokumentu. Horri dagokionez, hona hemen kontratu hau eskuratzeko bete beharreko gutxieneko eskakizunak:

- Lizitatzailearen kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionalaren egiaztagiriak, SPKLren 87. artikuluaren a) letran eta 90. artikuluaren d) letran zehaztutako baliabideen bidez. Aipatutako baliabideei dagokienez, enpresek kontratu konkretu honetarako bete beharko dituzten gutxieneko kaudimen betekizunak hauek dira:

Kaudimen ekonomiko eta finantzarioa: joandako azken hiru

ESKUbae7aa58-e324-49c8-bdd9-f789f56da744

urteetan negozio bolumen handieneko urtea, gutxienez, kontratu honi kalkulatzen zaion balioaren bat eta erdi halako izan beharko da.

Kaudimen tekniko eta profesionala: enpresa lizitatzaileak egiaztatu beharko du Administrazio Hidraulikoaren Enpresa Kolaboratzaileen Erregistro Berezian saiakuntza laborategi gisa inskribatuta dagoela, Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamendua onartzen duen apirilaren 11ko 849/1986 Errege Dekretuaren 255. artikuluan jasotakoaren arabera. Enpresa lizitatzaileak, halaber, **proposatutako laborategiak kontratuari atxikitzeko hartzen duen konpromisoa** aurkeztu beharko du, eta atxikipen hori **kontratuari loturiko funtsezko betebeharra** izango da, beraz, SPKLren 76.2 artikuluan xedatutakoaren babesean, hori ez betetzea kontratua bertan behera uzteko arrazoitzat jo ahal izango da, 211.1.f) artikuluan adierazten diren ondorioetarako.

e. Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beterik dituela frogatzen duten agiriak aurkeztea edo kontratazio organoari egoera hori horrela dela ziurtatzeko modu zuzena lortzeko baimena ematea.

f. Laneko arriskuak prebenitzeari buruzko dokumentuak.

Atal honetan aipatutako errekerimenduaren ondoren aurkeztutako dokumentazioak konpondu beharreko akatsak baldin baditu, hiru egun naturaleko epea emango da horiek zuzentzeko, eta zuzenean jakinaraziko zaio hori lizitatzaileari, eta Mankomunitatearen kontratatzailearen profilean ere argitaratuko da.

35. ESLEIPENA ETA FORMALIZAZIOA

Kontratazio Organoak, eskatutako dokumentazioa jaso eta bost egun balioduneko

Nafarroa etorbidea 17 - ☎ 943793399 - debagoiena@debagoiena.eus - www.debagoiena.eus

ESKUbae7aa58-e324-49c8-bdd9-f789f56da744

epean kontratua lehen sailkatuari esleitzea erabakiko du, SPKLren 150.3 artikuluan xedatutakoa aplikatuz.

Esleipena lizitatzaile guztiei jakinaraziko zaie, eta erakunde honen kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

Kontratua, lizitazioaren baldintzetara zehatz-mehatz egokituko den administrazio agiri gisa formalizatuz burutuko da, eta aipatutako agiria nahikoa titulu izango da edozein erregistro publikotan sartzeko. Hala ere, kontratua eskritura publiko bihurtzeko eska dezake kontratistak, eta, orduan, bere kontura izango dira eskritura publikoak egiteak sortutako gastuak.

Esleipena jakinarazi eta biharamunetik zenbatzen hasita, 15 egun balioduneko gehieneko epean kontratua administrazio dokumentu gisa formalizatu beharko da.

36. KONTRATUA EZ GAUZATZEKO ERABAKIA ETA PROZEDURA BERTAN BEHERA UZTEA

SPKLren 152. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, Kontratazio Organoak, behar bezala justifikatutako interes publikoko arrazoiengatik, kontratua ez esleitzeko edo ez gauzatzeko erabakia hartu ahal izango du. Halaber, prozedura bertan behera utzi ahal izango du kontratua prestatzeko edo esleitzeko prozedura arautzen duten arauetan zuzendu ezin den akatsik baldin badago. Kontratua ez gauzatzeko erabakia zein prozedura bertan behera uztekoa, kontratua formalizatu aurretik hartu beharko dira, eta aipatu artikuluan ezarritako baldintzen arabera.

II.- KONTRATUA GAUZATZEA

37. KONTRATUA GAUZATZEKO ARAUBIDE OROKORRA

Kontratua kontratistaren arrisku eta benturara gauzatuko da, plegu honetan eta baldintza teknikoen pleguan xedatutako klausulak betez, eta Mankomunitatearen gidaritza, ikuskapen eta kontrolaren pean, zeinak eskumen horiek ahoz zein idatziz baliatuko dituen.

Nafarroa etorbidea 17 - ☎ 943793399 - debagoiena@debagoiena.eus - www.debagoiena.eus

ESKUbae7aa58-e324-49c8-bdd9-f789f56da744

Kontratistari edo bere menpeko pertsonei egotz dakizkiekeen egintza edo omisioengatik kontratuaren martxa egokia arriskuan jartzen bada, Mankomunitateak beharrezkotzat jotzen dituen neurriak hartzeko exijitu ahal izango du kontratua behar bezala gauzatzeko.

38. KONTRATUAREN ARDURADUNA

Kontratua esleitzeko erabakian Mankomunitateko teknikari bat izendatuko da kontratuaren erantzulea izateko, kontratua gauzatzearen inguruko ikuskapena egiteko eskumenarekin eta jarraibideak emateko ahalmenarekin.

39. KONTRATUA GAUZATZEKO BALDINTZA BEREZIAK

SPKLren 202.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, kontratu hau gauzatzeko baldintza berezi hauek exijituko dira:

Ingurumen arlokoak:

Isurtegi efektuko gasen emisioa murrizteko helburuz kontratua gauzatu bitartean, enpresa esleipendunak betebehar hauek izango ditu:

- Jatorrizko instalazio, laginketa puntu eta laborategiaren arteko joan-etorrien erregistro eguneratua mantendu.
- Joan-etorri hauei dagozkien isurtegi efektuko gasen emisioa kalkulatu.
- Urte amaieran gasen emisio erregistro hau aurkeztu, emisioa hauek murrizteko balizko neurriak aurkeztuaz eta Mankomunitatearekin adostutako neurri zehatzak ezarriaz.
- Urtez urteko gas emisioen jarraipenerako erregistroa eraman, hauen eboluzioa aztertzeko.

Baldintza horiek funtsezko kontratu betebeharraren izaera dute, eta, SPKLren 201. artikuluaren arabera, betebeharra ez betetzeak kontratua bertan behera uztea eragin dezake, aipatutako Legearen 211.1.f) artikuluaren ondorioetarako

40. KONTRATISTAREN LAN BETEBEHARRAK

Kontratistak indarrean dauden lege xedapenak bete beharko ditu lan arloari, Gizarte

ESKUbae7aa58-e324-49c8-bdd9-f789f56da744

Segurantzari eta laneko segurtasun eta higieneari dagokienez, baita soldata baldintzei dagokienez ere, aplikatzekoa den hitzarmen kolektibo sektorialaren arabera; hori guztia kontratu honen xede diren zerbitzuetan enplegatzen dituen langileei dagokienez. Mankomunitatea salbuetsita geratuko da hori ez betetzeagatik sor daitezkeen erantzukizunetatik.

41. KONTRATISTAREN ERANTZUKIZUNA KONTRATUA GAUZATZEAN HIRUGARRENEI ERAGINDAKO KALTEENGATIK

Kontratista izango da kontratua gauzatzeko behar diren lanen ondorioz gertatzen diren kalte eta galeren erantzulea, aipatutako 196. artikuluan xedatutakoaren arabera.

42. HIZKUNTZA BETEBEHARRAK

Kontratu honek bete egin behar du hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren araubidea, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 6. artikuluan jasoa eta euskararen erabilera arautzen duen azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak eta Lege hori garatzen duten arauek erregulatua; horien artean daude, besteak beste, apirilaren 15eko 86/1997 Dekretua, EAEko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duena, eta Debagoieneko Mankomunitateko Hizkuntza Irizpideak izeneko dokumentuan (2013-2017) zehaztutako hizkuntza irizpideak.

Enpresa esleipendunak Debagoieneko Mankomunitatearekin dituen ahozko zein idatzizko harremanak (kontratuak, fakturak, txostenak, bilerak, kontsultak...) Debagoieneko Mankomunitatearen lan hizkuntzari egokituko zaizkio; beraz, euskaraz, edo, onartzen den kasuetan, hizkuntza bietan izango dira.

Kontratua sustatu duen administrazio unitateak berak egingo du kontratuan zehaztutako hizkuntza eskakizunen betetze mailaren segimendua, gainerako baldintzen segimendua egiten duen modu eta epe berdintsuetan, eta horren berri emango dio Euskara Zerbitzuari, zeinak onarpena emango duen, edo neurri zuzentzaileak proposatuko dituen.

ESKUbae7aa58-e324-49c8-bdd9-f789f56da744

Ondorengo baldintza pleguetan jasotzen diren hizkuntza eskakizunek kontratuaren funtsezko betebehar bat osatzen dute, eta eskakizun horiek ez betetzeak beste baldintzak ez betetzeak dituen ondorio berberak eduki ditzake, hau da, zigorrak ezartzea edo kontratua bertan behera uztea.

43. PRESTAZIOA HARTZEA ETA BERME EPEA

Kontratuaren xede den prestazioa amaitu eta hilabeteko epean gehienez ere, prestazioa hartzeko egintza formal eta positiboa egingo da.

Halaber, HIRU HILABETEKO epea ezartzen da - harrera formalaren datatik zenbatzen hasita - berme gisa, SPKLn eta Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorrean xedatutako ondorioetarako. Epe horretan, egindako lanetan edo prestazioetan ager daitezkeen akats eta bizioen erantzulea izango da kontratista.

Epe hori igaro eta Mankomunitateak eragozpenik jarri ez badu, kontratistaren erantzukizuna iraungita geratuko da.

44. KONTRATISTARENTZAKO ZIGORRAK HONAKO HAUEK EZ BETETZEAGATIK

A. *Kontratua gauzatzeko epeak ez betetzea*

Kontratista, berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, atzeratu egiten bada kontratua gauzatzeko epea betetzeari dagokionez, izan epe osoa zein epe partzialak, Administrazioak kontratua bertan behera utzi - eta bermea galdu - edo zigorrak ezar ditzake, eguneko 0,60 euroko proportzioan kontratuaren prezioaren 1.000 euro bakoitzeko, BEZa kanpo.

Berandutzeagatiko zigorrak kontratuaren prezioaren %5en multiplo batera iristen diren aldiro, Kontratazio Organoak eskumena izango du kontratua bertan behera uztea edo gauzatzen jarraitzea erabakitzeko, zigor berriak ezarrita.

ESKUbae7aa58-e324-49c8-bdd9-f789f56da744

B. *Prestazioen gauzatze partziala ez betetzea*

Kontratistak, berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, kontratuan zehaztutako prestazioen gauzatze partziala betetzen ez badu, Administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua bertan behera uztea ala kontratuaren prezio osoaren %10eko zigorra ezartzea.

C. *Betetze akastuna*

Prestazioa akatsez bete bada, Administrazioak zigorrak ezarri ahalko ditu, eta zigor bakoitzak ezin izango du kontratuaren prezioaren %10 gainditu, BEZa kanpo; gainera, zigor horien baturak ezin izango du hitzartutako prezioaren %50 gainditu.

D. *Ingurumen, gizarte eta lan arloko betebeharrak ez betetzea*

Kontratistak ez baditu ingurumen, gizarte eta lan arloko betebeharrak betetzen, eta bereziki, soldaten ordainketan behin eta berriz atzeratzen bada edo hitzarmen kolektiboetan ezarritakoa baino soldata baldintza txikiagoak modu larri eta maltzurrean aplikatzen baditu, Mankomunitateak, SPKLren 201. artikuluan xedatutakoa aplikatuz, zigorrak ezarri ahal izango ditu, eta zigor bakoitzak ezin izango du kontratuaren prezioaren %10 gainditu, BEZa kanpo; gainera, zigor horien baturak ezin izango du hitzartutako prezioaren %50 gainditu.

E. *Azpi-kontratistekiko betebeharrak ez betetzea*

SPKLren 217. artikuluan xedatutakoaren kalterik gabe, kontratistak ez baditu azpi-kontratistekiko betebeharrak betetzen, Administrazioak zigorrak ezarri ahalko ditu, eta zigor bakoitzak ezin izango du kontratuaren prezioaren %10 gainditu, BEZa kanpo; gainera, zigor horien baturak ezin izango du hitzartutako prezioaren %50 gainditu.

Nafarroa etorbidea 17 - ☎ 943793399 - debagoiena@debagoiena.eus - www.debagoiena.eus

ESKUbae7aa58-e324-49c8-bdd9-f789f56da744

45. KONTRATUA BERTAN BEHERA UZTEKO ARRAZOIAK

Zerbitzu kontratu hau bertan behera uzteko arrazoiak Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 211. eta 313. artikuluetan xedatutakoak dira.

46. AZPIKONTRATAZIOA

Kontratistak hirugarrenekin azpikontratatu ahal izango du prestazioa partzialki egitea. Edonola ere, azpi-kontratazio hori Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 215. eta 216. artikuluetako baldintzak betez egingo da.

III.- IZAERA, ARAUBIDE JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

47. KONTRATUAREN IZAERA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA

Plegu honetan oinarrituta egiten den kontratuak izaera administratiboa izango du, eta plegu honen arabera eta gehitu zaion gainerako dokumentazio teknikoaren arabera arautuko da. Bertan xedatuta ez dagoen guztirako, honako hauek xedatutakoa beteko da: Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, eta, Lege horren aurka ez doan orotarako, aplikatuko dira Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra, 1098/2001 Errege Dekretuak, urriaren 12koak, onartutakoa; urriaren 30eko Sektore Publikoko Kontratuen 30/2007 Legea partzialki garatzen duen maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua; eta, hala badagokio, Administrazio Publikoen kontratazioan ezarri beharreko gainerako arauak.

Administrazio Klausula Berezien Plegu honen eta espedienteari lotutako gainerako dokumentazioaren artean kontraesana gertatzen bada, Plegu honetan xedatutakoa nagusituko da.

48. ADMINISTRAZIOAREN ESKUMENAK

Nafarroa etorbidea 17 - ☎ 943793399 - debagoiena@debagoiena.eus - www.debagoiena.eus

ESKUbae7aa58-e324-49c8-bdd9-f789f56da744

Administrazioari eskumen hauek dagozkio: kontratua interpretatzea, betetzeko sortu daitezkeen zalantzak ebaztea, interes publikoko arrazoiengatik aldatzea, kontratua gauzatzearen ondorioz kontratistari egotz dakiokeen erantzukizuna adieraztea, gauzapena etetea, bertan behera uztea erabakitzea eta horren ondorioak zehaztea, SPKLn eta Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorrean ezarritako mugen barruan eta horien baldintza eta ondorioekin.

49. JURISDIKZIO ESKUDUNA

Kontratu honetatik ondorioztatu daitezkeen gai arazotsuak Kontratazio Organoak ebatziko ditu, eta horren erabakiek amaiera emango diote bide administratiboari, eta zuzenean inpugnatu ahal izango dira administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren aurrean, hala badagokio, kontratazio gaietarako errekurtso berezia jartzeko aukeraren kalterik gabe, azaroaren 8ko Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 44tik 60ra bitarteko artikuluetan xedatutakoaren arabera, edo Administrazio Publikoen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean araututako edozeinetan xedatutakoaren arabera.

-**Arrasaten, 2026ko martxoaren 13 an**

ESKUbae7aa58-e324-49c8-bdd9-f789f56da744

I. ERANSKINA.- LIZITAZIO ELEKTRONIKORAKO JARRAIBIDEAK

I.- LIZITAZIO ELEKTRONIKORAKO SISTEMA.

1. Kontratazio prozedura tramitatzeko (dokumentuak bidali, kontratua sinatu, jakinarazpenak jaso…) lizitazio elektronikorako sistema erabiltzeko baldintzak.

1.1. Baldintza administratiboak:

a) Debagoieneko Mankomunitateak erabiltzea baimentzen duen ziurtagiri digital bat izatea, tramitazio elektronikorako. Gaur egun hauek dira ziurtagiri elektroniko horiek:
   - Izenpe (Erakundea, Herritarra, Erakundearen ordezkaria).
   - FNMT (Erakundea, Herritarra, Erakundearen ordezkaria).
   - Nan-e
   - Camerfirma (Erakundea, Herritarra)

b) Egoera hauetakoren batean egotea:
   a) Alta egoeran egotea eta indarreko ziurtagiria izatea Euskadiko Lizitatzaile eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan.
   b) Lizitazio elektronikorako aldi baterako gaikuntza sisteman altan egotea.
   c) Bi operadore ekonomikok edo gehiagok parte hartzen badute elkarrekin formalki ABEE bat eratzeko konpromisoarekin, ABEEaren konpromisoa aldi baterako gaikuntza sisteman erregistraturik egon beharko da.

1.2. Baldintza teknikoak:

Elektronikoki lizitatzeko baldintza teknikoei buruzko informazioa esteka honetan aurki daiteke:
http://www.contratacion.euskadi.eus/w32-content/es/contenidos/informacion/licitar_electronicamente/es_02/requisitos_tecnicos.html

1.3. Lizitazio elektronikoari buruzko zalantzak edo intzidentziak argitzeko zerbitzua: 945016298.

2. Lizitazio elektronikoko sistemara sartzeko modua: Sistema erabiltzeko atari honetara sartu beharko da: www.contratacion.euskadi.eus

ESKUbae7aa58-e324-49c8-bdd9-f789f56da744

DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA

II.- ERANSKINA. JAKINARAZPEN ETA KOMUNIKAZIO ELEKTRONIKOAK.

Bide elektronikoz egiten diren jakinarazpen eta komunikazioak Gipuzkoako Foru Aldundiaren bitartez egingo dira, https://egoitza.gipuzkoa.eus/es/ lotura erabiliz. Jakinarazpen edo komunikazio bat bidaltzen den bakoitzean, enpresak bidalketaren oharra jasoko du **I. eranskin** honen **Gehigarrian** horretarako adierazi duen helbide elektronikoan.

II. ERANSKINAREN GEHIGARRIA.- JAKINARAZPENAK ETA KOMUNIKAZIOAK JASOTZEKO DATUAK

IDENTIFIKAZIO DATUAK

1. abizena, 2. abizena, Izena **NAN-IFZ**

	Nire izenean
	Ordezkatzen dudan enpresaren izenean

Ordezkatuaren izen soziala:

Ordezkatuaren IFK:

* Aldi Baterako Enpresa Elkarteen kasuan, egokitu eredua ABEEa osatzen duten enpresetako bakoitza ordezkatzen duten pertsona guztien datuak gehitzeko.

ADIERAZTEN DU(TE)

Kontratua esleitzeko prozedurari buruzko jakinarazpenak eta komunikazioak jasotzeko (izena eta espedientearen kodea):

KONTRATAZIO ESPEDIENTEAREN DATUAK

Kontratuaren izena

Epeleko zabortegiko lur gaineko uren, lurpeko uren eta lixibiatuen, eta Bergarako Garbiguneko eta San Balerio garajeko isurketa uren laginak jasotzeko, landa neurketak egiteko eta laborategiko analisiak egiteko zerbitzua.

Erreferentziazko kodea

2026ZHKE0001

Jakinarazpenak eta komunikazioak bide elektronikotik egiteko datuak hauek dira[1]:

Kalea/Plaza/Etorbidea/… **Zk.** **Solairua** **Eskua**

JAKINARAZPEN ETA KOMUNIKAZIOETARAKO DATUAK

Udalerria **PK** **Probintzia**

Telefonoa **Mugikorra**

Oharretarako helbide elektronikoa:

Hartzailea:

Jakinarazpenak/komunikazioak jasotzeko hautatutako Euskara ☐ Gaztelania ☐

ESKUbae7aa58-e324-49c8-bdd9-f789f56da744

1 *Zenbait enpresak parte hartzeko eskaintza edo eskaera aurkezten badute, formalki Aldi Baterako Enpresa Elkarte bat eratzeko konpromisoarekin, jakinarazpen eta komunikazioetarako helbide bakar bat aurkeztu beharko dute.*

ESKUbae7aa58-e324-49c8-bdd9-f789f56da744

DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA

III. ERANSKINA.- IRIZPIDE AUTOMATIKOAK BALORATZEKO ESKAINTZA

IDENTIFIKAZIO DATUAK

1. abizena, 2. abizena, Izena **NAN-IFZ**

	Nire izenean
	Ordezkatzen dudan enpresaren izenean

Ordezkatuaren izen soziala:

Ordezkatuaren IFK:

KONTRATAZIO ESPEDIENTEAREN DATUAK

Kontratuaren izena

Epeleko zabortegiko lur gaineko uren, lurpeko uren eta lixibiatuen, eta Bergarako Garbiguneko eta San Balerio garajeko isurketa uren laginak jasotzeko, landa neurketak egiteko eta laborategiko analisiak egiteko zerbitzua

Erreferentziazko kodea

2026ZHKE0001

A.- Adierazitako kontratazio espedientearen inguruan eskatzen diren baldintzen eta betekizunen berri izanik, **ESKAINTZA EKONOMIKO** hau proposatzen da:

- Epeleko Zabortegiko lurrazaleko uren, lurrazpiko uren eta lixibiatuen kontrola: …….. €/urtean, gehi ……..€, BEZaren %21ari dagozkionak. Guztira. €.
- Bergarako garbiguneko isurketa uren kontrola: …… €/urtean, gehi ……..€, BEZaren %21ari dagozkionak. Guztira.....€.
- San Balerio garajeko isurketa uren kontrola.....€/urtean, gehi ……..€, BEZaren %21ari dagozkionak. Guztira.....€.

Eskaintza ekonomiko hau honelaxe xehatzen da:

…….
…….

B.- ENACek (edo baliokideren batek) inspekzio entitate edo saiakuntzen laborategi gisa akreditatuak dituen parametro analitikoen <u>KOPURUA</u>: …….

ESKUbae7aa58-e324-49c8-bdd9-f789f56da744

DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA

Lekua eta data:

ESKUbae7aa58-e324-49c8-bdd9-f789f56da744

DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA

IV. ERASKINA .- ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

IDENTIFIKAZIO DATUAK

1. abizena, 2. abizena, Izena **NAN-IFZ**

	Nire izenean
	Ordezkatzen dudan enpresaren izenean

Ordezkatuaren izen soziala:

Ordezkatuaren IFK:

Enpresaren titularra den heinean/ordezkatzen duen enpresaren izenean, bere erantzukizunpean adierazten du:

1.- Eskaintza aurkezten duen enpresaren **ordezkaritza** dauka.

2.- Ordezkatzen duen enpresak **Administrazio Publikoarekin kontratatzeko gaitasuna** dauka, izan ere, jarduteko erabateko gaitasuna duenez gero, ez dago SPKLren 71. artikuluan xedatutako inolako egoeratan sartuta.

3.- Eskatutako baimen/gaikuntza profesionalak, kaudimen ekonomikoa, finantzarioa, eta profesionala eta teknikoa dauzka, edo, bestela, dagokion sailkapena.

Aipatutako kaudimena egiaztatzeko:

☐ BAI oinarrituko da beste enpresa baten baliabideetan, eta badauka horretarako behar den konpromiso idatzia.

☐ EZ da beste enpresa baten baliabideetan oinarrituko.

4.- Atzerriko enpresa bat da:

	BAI, eta Espainiako jurisdikzio eta auzitegiei men egiten diet, dagokidan atzerriko foru jurisdikzionalari uko eginda.

	EZ

10.- Eskaintzaren honako dokumentu, informazio eta alderdi hauek konfidentzialtzat dauzka, sekretu tekniko eta profesionalei lotuta daudelako: [2]

1.- .....
2.- .....
3.- .....
.....

Izaera konfidentzial hori arrazoi hauengatik justifikatzen da:

1.- .....
2.- .....

ESKUbae7aa58-e324-49c8-bdd9-f789f56da744

3.- .....…

Lekua eta data:



2 Konfidentzialtasun adierazpena ezin izango da enpresak aurkeztutako dokumentazio guztira hedatu, ezta eskaintza teknikoaren dokumentazio egiaztatzaile guztira ere. Kasu horretan, adierazpena era desegokian dimentsionatzen bada, kontratazio organoak ebatziko du zein datuk edota dokumentuk merezi duten horrelakotzat hartzea. Enpresak ez badu berariaz adierazi datu edota dokumentu bat konfidentziala dela, ulertuko da aurkeztutako datuak edota dokumentuak ez direla konfidentzialak. Halaber, eskaintzak aurkeztu ondoren, ez da onartuko konfidentzialtzat jotzea aurkeztu diren unean horrelakotzat jo ez diren datuak.

EKS | CSV: ESKUbae7aa58-e324-49c8-bdd9-f789f56da744

Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: https://erakunde.egoitza.gipuzkoa.eus?De=09710

Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: https://erakunde.egoitza.gipuzkoa.eus?De=09710